

ANTONIO
ZAVALLA

NOE' REN ONTZIA



10679
GAS-128/20

NOE'REN ONTZIA

AUSPOA LIBURUTEGIA
(136)

EDITORIAL AUSPOA

**Plaza de Santa María, 2 — Teléfono 67.12.82
Tolosa (Guipúzcoa)**

ANTONIO ZAVALA

NOE'REN ONTZIA

AUSPOA LIBURUTEGIA

1979

Auspoa Liburutegia - Tolosa (Guipúzcoa)
Imprimatzaille: Gráficas Sortu, S. Coop. - Políg. Ind. 15 - Cizúrquil
Depósito Legal: S. S. 540/1979
ISBN 84-7158-066-7
Octubre 1979

ARKIBIDEA

Itzaurrea	9
(1840-1850) Monjetako Azpeiti'ko bi errementarik ..	15
(1864) Bertso berriak: "Azkoiti'ko erriyan zer pasatuba dan..."	21
(1866) Bertso berriak: Asto guztiak ez dira igualak antza aundia izanagatikan	27
Bertso berriak: "Txakur orren kasuan amar bertso berri..."	35
Kanta berriak: "Mando bat erosi du merke delakuan..."	39
"Ene astotxu mantxiñe..."	45
Auntzarenak	53
Bertso berriak: "Nere zaldiyarentzat dozena bat kanta..."	59
Kopla zar batzuek asto baten tratuari jarriak ..	65
Bertso berriak Jose Joakin eta Jose Marik jarriak	73
Katuarenak	79
Bertso berriak asto bateri jarriak "Txakur amatua da..."	87
Bei antzuenak	97
Bertso berriak (Txakur baten kontuak)	101
(1926) Bertso berriak gazte batek jarriak	113
Puskallak	119

ITZAURREA

Jose Manterola jaunak, bere *Cancionero vasco* liburuan¹, Bilintxen Zaldi baten bizitza agertzerakoan, onela dio:

“El asunto, manejado por Vilinch con tanta gracia y habilidad, es muy común a los poetas vascos, y son varias las composiciones de análoga índole que he visto escritas en los diversos dialectos, pero en ninguna encuentro el mérito ni la perfección que en la del malogrado Bizcarrondo, por más que la mayor parte de ellas ofrezcan rasgos aislados, especialmente en la descripción, que no carecen de gracia.

Recuerdo, entre otras, las poesías tituladas Ikhazketako mandoa, escrita en un dialecto mixto (alto y bajo-navarro), dada a conocer por los ilustrados filólogos MM. Michel y Sallaberry, en sus respectivas colecciones; Ampleren Zamaria e Ichkerraren zamaria, que sin más cambio que el nombre del título y una que otra ligera diferencia son la misma compo-

¹ José Manterola, *Cancionero Vasco*, Primera serie, Tomo tercero, Enero de 1878.

sición en dialecto suletino; otra anónima, en el mismo dialecto, denominada Asto zahar bat; otra más, anónima también, que comienza con el verso:

Behor bat erosi dut adin onecua...,

reproducida también por M. Michel; otra de un modesto pero laboriosísimo artesano de esta Ciudad, que lleva el título de Erdaldun baten zaldiyari, escrita en dialecto guipuzcoano, y de fecha muy reciente²; unos Verso berriac, en el mismo dialecto, impresos en Tolosa, en casa de la Viuda de Mendizábal, en 1867, sin otro título y que comienzan así:

Zaldi ecuscarri bat
Irunen saldu da...³

y por último, otros, anónimos también, impresos en la misma casa y forma, sin fecha de impresión, y que principian:

Marcos Lasartecuac
saldu du zaldiya...,

pero ninguna de dichas producciones me satisface en conjunto, ni con mucho, lo que la afortunada inspiración de Vilinch, que tengo el gusto de ofrecer en este tomo a los lectores del Cancionero."

Manterola'ren aitamen luze onetatik, iru gauza atera ditezke.

Aurrena, bertso-sail guzietan onena, Manterola'ren iritzirako, Bilintxena dala. Benetan

² Ramon Artola'rena da bertso-sail au. Ikus: *Auspoa*, 76 orri-aldean.

³ Bertso-sail au ez degu ifñon arkitu; ezta urrengoa ere.

ala izateak, ez luke noski zer arriturik. Baiñan Bilintxen bertsoen aurretik, zer esango zuan bada? Egia esateko, seta txoro xamar bat badegu euskaldunak: zera guzietan onena berezi bear beti. Agidanean, bizitza eta mundua txapelketa bat bezela ikusten ditugu, eta txapelduna aukeratu bitartean pakerik ez degu.

Eta bertso-kontuan ere berdin. Onako galdera au entzuten aspertuta gaude: Zein izan da bertsolaririk onena? Gure iritzirako, bertsolaririk onena jaio gabe dago; eta ez da sekula jaioko ere. Erabat onena danik izan ez dala eta izango ere ez dala esan nai degu. Nork bere alderdiak ditu. Eta bertso-sail bakoitzagatik ere gauza bera esan diteke: bakoitzak bere alderdiak.

Bigarrena, Manterola berealaxe oartu zala abereai jarritako bertsoak sorta berezia osatzen zutela; erderaz *género* esaten dana, alegia.

Ta irugarrena, berak ezagututakoak izendatzen asten da, zerrenda-edo egin nairik. Neke geiago artuko genduke guk, orretara jarri ezkeru. Geroztik onera mota orretako bertsoak asko ugaldtu baitira.

Gure iritzirako, gaur egunean saillik ezagunenak lau dira: Bilintxen *Zaldi baten bizitza*, Xenpelarren *Betroiarenak*, Azpeiti'ko Uztarri'ren *Bizkai'ko txerriarenak* eta Otaño'ren *Txepetxarenak*.

Baiñan oietaz kanpora, beste sail asko dago. Gezaltza'ko aitona, Udarregi, Errikotxia, Pello Zabaleta, Alzo'ko Imaz, Jose Garmendia, Pau-

lo Yanzi, Lexo, Motza, Iturzaeta, Txirrita, Pastor Izuela, Lasarte, Ramon Artola eta beste bertsolari askok, mota onetako bertsorik badute.

Olakorik zergatik gertatu dan, errez soma genezake. Euskal bertsolaria, geienetan nekazaria izanik, abere-zalea izan da. Are geiago: aiekin bizi da, izketan ere egiten die, personak ez diranik etzaio bururatzen. Ta, ala, abere oiek bertso-gai biurtu zaizkio bein baiño geiagotan.

Mota onetako bertsorik asko argitaratu du *Auspoa*'k. Baiñan illunpean geldituak ere bazituan. Auetako batzuek, egillea nor dutenak dakigunak dira. Oiek alde batera uzten ditugu oraingoz.

Bazter uzten ditugu, baita ere, Bidasoa'z beste aldekoak, lurralde aietan olakorik asko badute ere. Baiñan oien txanda ere iritxiko da egunen batean, Jainkoa lagun.

Berdin egingo degu itxas-piztien bertsoekin ere. Auek ere, beste aldi baterako gelditzen dira.

Beraz, liburu onetara sarrera emateko, ezau-garri auek nai izan ditugu bertsoetan: Bidasoa'z onunzkoak, legorreko abere edo piztiaiarriak, eta, azkenik, umezurtzak; egillearen edo aitaren izenik gabekoak, alegia.

Zernai abere eta pizti ageri zaigu bertso auetan: ontza, txakur, mando, asto, zaldi, auntz, bei, katu, basurde, txerri, arkakoso, gabiroi, azeri, basakatu, ollar... Kondaira santuak dionez, Noe'k, "ugoldea asi zan aurreko

zazpi egunetan kutxan sartu zituen abere edo animali-mota guziak...⁴". Bertsolariak ere, mota guziak ez noski, baiñan mordoska polita sartua dute beren bertsoetan; "Noe'ren ontzia" egin aiek ere. Ta orixe ezarri diogu liburu oni izenburutzat.

Gerok magnetofonoz jasotako doñuak pape-reratu dituana, Manuel Yaben adiskidea izan da.

Azaleko *grabado* edo apaingarrria, 1879 urteko liburu batetik artua degu⁵. Ondarrabi'ko kale nagusia da. Or ikusten danez, kristau eta abereak patxara ederrean ibiltzen ziran orduan kaleetan. Orain, berriz, Pello Zabaleta bertso-lariak ziona:

gu bururikan gelditu gabe
bazterretara begira,
garai bateko lasaitasunak
ederki estutu dira.

Gaur egunean, gure kaleak automobillen mende daude. Etxe-barruetan, berriz, telebisioa eta abar nagusi. Aurki, garaiz esnatzen ez bagera, berak sortutako tramunkuluen morroi ikusiko da gizona.

Liburu onetako bertsoak, *grabado* orrek erakusten duan beste mundu lasai orretan jaioak dira. Orregatik, ikusi orduko, neurrira egiña iduritu zitzaigun azalean jartzeko.

⁴ Franzisko Inazio Lardizabal: *Testamentu zarreko eta berriko kondaira*, Tolosa'n, 1855'garren urtean.

⁵ Vivien de Saint-Martin...: *Nueva geografía universal*, Tomo IV, Barcelona, Montaner y Simón editores, 1879.

1840 - 1850

**MONJETAKO ONTZARI
AZPEITI'KO BI ERREMENTARIK**

Zortzi bertso auek, Iruñe'ko *Revista Euskara*'tik ditugu; 1883 urtean agertu ziran.

Izenburuko zerak, urteak eta itzak alegia, aldizkari orretan ere alaxe daude.

Itzak, bertsoen gaia zer dan adierazten digute. Baita nungo gertaera izan zan ere. Ta naiz-eta izenik ez eman, bertso-jartzalle bi izan zirala eta zer bizibide zuten ere bai. Ala ere, bertsoen azpian, firma bezela, *Errementari batek* esaten du.

Urteak, berriz, bertsoak noiztsu jarri ziran adierazi naiko dute. Baiñan bertsoetan ez da olakorik ezer esaten, eta ori nundik atera duan ez du *Revista Euskara* orrek gaztigatzen.

Damurik, bertsoak nundik artu dituan ere, ixildu eta beretzat gorde egiten du.

Gaur egunean Azpeiti'n moja-komentu askotxo badago ere, garai artan bakarra izango zan: frantziskanak, ibaiaz eskubi aldera, Enparan jauregiaren ondoan. Arrizko orma aundi-ederrak ditu, bertso aukeratuak ongi dagozkionak alegia. Komentu onezaz Gorosabel'ek onela dio bere *Diccionario Histórico-geográfico-descriptivo de Guipúzcoa* liburuan, Azpeitia'z mintzatzean:

“Extramuros de la villa hay también un convento de monjas de la Purísima Concepción, cuya fundación data desde el año de 1497, según unos apuntes que se conservan en él, sin que se exprese quién la verificó. Esto no obstante, es indudable que su fábrica actual es de siglos posteriores.”

Azkue'k, bere *Cancionero Vasco*'ren 911 zenbakian, bertso auen doña eta bi bertso agertzen dizkigu, Napparroa'ko Uitzin, Frantzisko Arrizurieta'ren aotik jasota eta bi adierazpen aukeratuak eginik:

“Creo que el dúo me lo dio alguien que estaba con el anciano y fecundo Arrizurieta.

Llaman o llamaban por allí esta pieza Ontzaren kantua, “la canción de la lechuza”.

Ona emen, leenik doña Azkue'renetik, ondoren bertsoak Iruñe'ko aldizkari orretatik, eta azkenik Azkue'k azaltzen dituan bertsoak, aldaketa asko dituzte eta:

Moderato assai

Primo tempo

1/Bide berritik bera giñazen
 astelen illuntze baten,
 boz mudatuba aditurikan
 jarririk erreparatzen,
 monjen pareta-zulo batean
 ontza zegoan kantatzen.

2/Nun zegon ondo begiratuta
 eman giñokan arrika,
 iñora ere etzan mogitzen
 geuri begira jarrita,
 nekerik asko artu genduan
 eskallerak ekarrita.

- 3/Eliz-kalian eman ziguten¹
eskallera bat galanta,
entero labur zan ura ere
aren alturan parata,
luzegarri eske juan giñaden
ura zutikan largata.
- 4/Erreparatzen laister asi zan
eskalleraren otsari,
estimazio ematen giñon
zuluan zegon ontzari,
lumak kenduta pisau ezker
etzan izango ontza bi.
- 5/Egazti oiek arrapatzia
jentiai ongi zeritzan,
geuri eskapau tellatura ta
ujuka pozik zebiltzan,
komentu orrek anparu ona:
daduzka oiek elizan.
- 6/Egunez beti isillik dira,
gabian berriz kantari;
engañaturik larga ginduzten
oiek bi errementari,
oraindik atxi bear ditugu
or baldiñ badaude sarri.

¹ *Revista Euskara'k* erran idazten du. Baiñan erran Azpeiti aldean esaten ez baita eta emen esan-nairik ere ez baitu, *eman* bear duala pentsatu degu eta orrela jarri.

7/Arrapatzera saia dedilla
oliyuaren jabia,
bestela laister itzaliko da
gau guztirako pazia,
egazti ori guztiz omen da
argitan eranzalia.

8/Agur ontzari esan giñon ta
“gabón Jainkoak dizula”,
aragi asko ezpadu ere
badu kanpotik itxura,
egazti ori artuta ere
saldu eziñ leike pisura.

Errementari batek

Azkue'k agertzen dituan bertsoak:

Zubi berrian gera ginaden
astelen iluntze baten;
boz mudatuak aditu eta
yarririk erreparatzen,
monjen paretan zulo batean
ontza zegoan kantatzen. *U, u.*

Non zegoan ondo begira eta
eman gendion arrika;
ala ere etzan, etzan mugitzen
guri begira yarrita,
lanik asko artu genduan
eskalerak ekarrita. *U, u.*

(1864)

BERTSO BERRIYAK

“AZKOITI'KO ERRIYAN ZER PASATUBA DAN...”

Bertso auek, *Azpeitian: Pablo Martinez'en moldizteguian* argitaratuko kanta-paper bate-tik ditugu. Iru tokitan arkitu degu paper ori: Loiola'n, Aita Jose Inazio Arana zanaren bilduman; Chicago'n, Bonaparte'ren bilduman; eta Paris'en, D'Abbadie'ren bilduman.

Egillea nor dan ez da esaten; baiñan bigarren bertsoak dionez, lendabiziko sailla du bertsolariak.

Ta bertsoak noiz eta nun jarriak diran, aurrenekoak adierazten digu: 1864 urtea eta Azkoiti'ko erria.

Azkoiti'ko bertsolari zaarren bizitza ta bertsoak argitaratuak ditugu: Auspoa, 82, 94 eta 95-96'garrena.

Liburu oiek prestatzerakoan, bertso-sail au gogoan eduki genduan. Bai bati eta besteari galdetu ere. Baiñan tutik etzekian iñork ere;

bertso auek bazirala ere, guk esandakoan ikasten zuten.

Bestetik, berriz, azkoitiar bertsolari zaar oien zerrenda aztertuta, au ikusten genduan: batzuek gaztegiak zirala bertso auek jarri zira-nean; eta besteak, bertsoak paperetan paratzeko oiturarik etzutela. Ezin ba bertso auen jabetasuna iñori eman.

1/Milla zortzireun da
irurogei ta lauban,
seguru ez dakit illa
Juniyua ote zan;
esplikatzera noa
amalau bertsotan,
Azkoiti'ko erriyan
zer pasatuba dan.

2/Nola egin ez detan
beñere bertsorik,
barkaziyo eskatzen det
badago okerrik;
ez det uste iñun ere
dagoala maisurik,
bere aprendiz-urtiak
pasa gabetanik.

3/Bertso abek jartzeko
zer dan motiboa,
lau edo bost itzetan
esatera noa;
farragarriya da bai
pasa dan kontua,
farrez zoratzen dago
txakur gizajua.

4/Neronek esateko
orañtxen egiya,
asunto onen teatro
zan plaza aundiya;
txakurak pasa zuben
naikua larriya,
ikusten zubenian
zure orraziya.

5/Bildurak oso arturik
bai Txinbo tristea,
zuri begira zeguen
ikaraz betea,
orraziya zalako
arma terriblea,
nola orrazatutzen
zan oitu gabea.

6/Begira egondu gera
alegiñ guzian:
arkakosuak iltzen
plazaren erdiyan,
sei errialegatik
txit afan aundiyan;
ongi portatu zera
enpleo berriyan.

7/Farrez ere zeguen
txakurren jabia,
alakorik beñere
ikusi gabia;
ori da gizonaren
abillidadia,
txakurra orrazatzen
errejidoria.

- 8/*Juez de paz* jauna zera
orgulloz beterik,
gañera errejidore
zera bai bestetik;
ez det uste daguela
ofizio oberik,
txakur txiki politak
orraztia baizik.
- 9/Izanagatikan zu
lan onetan fiña,
sei errial badira
zuretzako diña;
egin dezu orrazten
naiko alegiña,
Txinbok artu zuben bai
ongi atsegiña.
- 10/Gauza bat pensatu det
orañtxen batian,
egin bear dezuna
bai zure onian:
letrero aunditxo bat
jarri zazu atian:
*“Aquí se peinan perros
sei errialian”*.
- 11/Txinbo da, adiskideak,
txakurren izena,
txokolate-kolore,
txiki ta gizona;
propiedade danetan
onena dubena:
txit da txakur leiala
aditzen esana.

12/Txakurraren gañian
ez det zer esanik,
danok ikusi zuten
zeguela geldirik,
bere ustez pensatzen
konsueloz beterik,
beñere etzuela izan
alako gustorik.

13/Orra danok ezautu
errejidoria,
orrazatzen daukana
abillidadia;
arkakusuak iltzen
da guztiz ermia,
txakur bat garbitu du
guziia betia.

14/Txakur-pelukerua,
konsolatu zaite,
beti izango zaitu
Txinbo onek maite;
neronek ere arturik
txakurrekin parte,
agur egiten dizut
kukubak jo arte.

(1866)

BERTSO BERRIAK

ASTO GUZTIAK EZ DIRA IGUALAK ANTZA AUNDIA IZANAGATIKAN

Bertso auek, bedaiotar baten ibillerak eta komeriak kontatzen dizkigute, erriko festetarako bear eta Naparroa'ra ardotara joanda.

Bedaiotar orren izen-abizenak, azken bigarren bertsoan esáten dira: Juan Antonio Zubillaga; *Lardasketa* izeneko liburua idatzi zuan Jose Ramon Zubillaga zanaren aurrekoa, ain zuzen, Ikus: *Auspoa*, 40-41'garrena.

Amazazpi bertso dira, eta Paris'ko *Bibliothèque Nationale*'n dagoan bertso-paper bate-tik kopiatu ditugu.

Paper orrek, beko barrenean, adierazpen jakingarri auek ditu: "*Pueden imprimirse. = Tolosa 5 de Noviembre de 1866. — Benito Gorostegui. Modesto, Dionisio eta José Gorosabelen moldizteguian*".

Ta, eskuz idatzita, eraskin au: *Betelu-cobnoscach Manuela c eguiñac*.

Betelu'n emakumezko bertsolari bat izan zala, leen ere aditzera bagenduan. Ta bein batean Ozkotz'eko Erdabide bertsolariarekin bertsotan-edo egin zuala ere bai. Baiñan aren bertsorik ez degu bat ere eskuratu, auek izan ezik. Ta pena aundia da, sail au jarri zuana bertsolari ona baitzan.

Baiñan paperean ori idatzita egonik ere, gauzak orrela ote diran zerbait duda egin diteke. Alzo'ko Imaz'en itxura artzen diogu guk beintzat sail oni.

1/Bertso berriak jartzera noa
ala moduak emanik,
iñun ikusi eztegulako
onela gertatu danik;
eztet aditu kulparik gabe
ala tratazen gizonik,
istillu txarrak Nafar aldean
oraiñ ikusi ditut nik.

2/Santa Maria Kristoren Ama
jaio zitzaigun eguna,
degu Bedaio'n beraren onran
festa egiten deguna;
eta orduan gonbiratzeko
ara juntatzen zaiguna,
Nafarroa'ra jua ardotara ta
izan det istillu ona.

- 3/Funtziorako ardoa nai ta
juan naiz astua artuta,
Uli'ko bentan iru kantaro
jarri ditut pagatuta;
etxe aldera asi gerade
asto ori kargatuta,
Birjiña Amaren festetarako
nentorren konsolatuta.
- 4/Txurruptat ere edan nuan da
animatua biotza,
txoria baño alegreago
Lekunberri'tik onuntza;
onratutzeko intentzioan
Birjiña Amaren jaiotza,
arri ta korri geren lekura
ai guk genekarren poza¹.
- 5/Pagolleta'ko gañian neri
topoa eman direa,
galtzadunak lau aurean eta
ezin libratu bidea;
festara ardoa ekarritzeko
ura da buruzbidea,
andik etxera naizenerako
lanak eman dizkidea.
- 6/Nere asto zar triste gaixoa
ez material biguña,
zazpi urtian serbitu nau ta
lau ume neri egiña;
arena dala gogor asi zait
Gorriti'ko danboliña,
itzez da obraz deretxo bage
egin digu alegiña.

¹ Bertso-paperak: *ay guc guencarren poza.*

7/Lendabizia itzez giñaden
astoaren diskordian,
aserratu ta gero burruka
kamioaren erdian;
nere gauzakiñ eziñ agindu
nuan oraingo aldian,
ta Azpirotz'a eraman naute
txit desprezio aundian.

8/Nik Azpiroz'ko erri noblean
onore ona det jaso,
alkate jaunak gauzak kenduta
an sartu ninduen preso;
nere egiak sinistu nai ez
ta aien gezurak oso,
bertan itoko ote ninduen
sobre nengoen kezkosu.

9/Erri onetan pasatu ditut
amaika pena ta lotsa,
kartzela artan txit alegre ere
ez det iduki biotza.
"Or dagoana lapurra omen da"
zan gonbertsazio-otsa,
aldameneti gonbite gutxi
ta begiratu zorrotza.

10/Mandatari bat etxerako nai,
eziñ billatuaz penak,
ekarritzeko nere astoa
ezagututzen dutenak;
guziak zeuden jornalagatik
serbitu nai ez nautenak,
konbeni dana eziñ egiña
besteren mende daudenak.

- 11/Goardiarekin biraldu naute
andikan Lekunberri'ra,
kuestioa erabakitzen
gabiltz erritik errira;
zer gizon-kasta ote naizen ni
jende guzia begira,
berak kendutzen eta ni lapur
egiten ibilli dira.
- 12/Lekunberri'ko alkate jaunak
juateko Gorriti'ra,
asto zarraren sententzi ori
orra beti urrutira;
Anas'engandi Kaifas'engana
bezela jira ta bira,
desonrak eta desprezioak
ematen ibilli dira.
- 13/Modu orretan gu gabiltzala
gizonak bildu zaizkigu,
asto zar ori nerea dala
bear dan aÑe testigu;
libratu degu, oraiñ toporik
iñork ematen eztingu,
danboliñ orren soñuak dantza
txarrak eragiñ dizkigu.
- 14/Konsideratu zenbat kastigu
etorri diran neretzat,
ezta konbeni pasatutzea
kontu zikiñak garbitzat;
ai, eziñ iñork konta dezake
dudakorikan egitzat,
astoarekiñ ori pasatu
izandu dala deritzat.

15/Borrokatu naiz, preso ere bai
okerreneko moduan,
ardo ta ast.o, ekipajea,
danak galtzeko moduan;
gizon onakiñ juntatua naiz
edan bear bagenduan,
orrelakorik gertatu danik
eztet aditu munduan.

16/Juan Antonio Zubillaga naiz,
klaratu ditut egiak,
izandu ditut injuri asko,
injustizi geiegiak;
nere astoa baño aundiagoak
orien astakeriak,
ezaguera ona daduka
danboliñ orren begiak.

17/Persekuzio asko daukagu
munduan bizi geranak,
tentazioak izandu ditut
nik ere zeñek emanak;
aundiagoak pasa zituan
gure Jesukristo jaunak,
Aren gustoa egin dezadan
barkatzen dizkiet danak.

Argia astekariak, bertso auk 1931.II.1'an argitaratu zituan. Baiñan ez bertso guziak, amairu auk baizik: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 12, 10, 13 eta 16'garrena, orden ortantxe.

Aurretik, argibide au ematen zuan:

"Iruñako idazle jator "Larreko" jaunak dauka arreta bizia antziñeko esaerak eta neur'itzak azaltzeko, betiko galdu ez ditezen. Nik ere, bere gogoari jarraituz, gaurko idazkitxo ontan agertzen dut antziñeko gertaera polit

bat. Naparroko eta Gipuzkoako euskal erri txikietan sendi edo famili askotan izaten zituzten (orain ere badira) beren lanetarako, arbiak alorretik etxeratzeko, artoa errotan egotzeko, egurra ekartzeko eta beste zenbait lanetarako, astotxo txiki batzuk. Astotxo oiek askok ere elkarren antz edo iduria aundia izaten zuten eta beragatik errax uste izan zezaketen norbaitek berea zuela bestearena zana. Ala gertatu zitzaion Bedaio'ko gizon gizarajo bati. Ara emen neurtitzetan jarria."

Ondoren, bertsoak ezartzen ditu, aldaketa auekin:

1/3: ez degulako iñon ikusi; 1/4: orrela gertatu danik; 1/6: ola tratatzen gizonik; 2/6: onera etortzen zaiguna; 2/7: Naparroara joan ardotara; 3/3: Guli'ko bentan iru kantaro; 3/4: artu ditut pagatuta; 3/5: etxe aldera abiatu naiz; 3/8: natorren konsolatuta; 4/1: Txurrupe bat ere edan genduen; 4/8: ai! guk an gekarriñen poza; 5/5: pesta ardoa eramateko; 5/6: auxen da buruzpidia; 6/7: itez ta obraz deretxo gabe; 7/1: Lendabiziko itez giñaden; 7/2: asto orren diskurdian; 8/6: orien gezurrak oso; 8/7: bezela jira ta bira; 9/1: Erri orretan pasatu ditut; 9/3: gartzela ortan oso alegre; 9/5: Or dagon ori lapurra omen da; 10/2: eziñ billatue penak; 10/3: etorri bitez nere astoa; 10/4: ezagutzen dezutenak; 10/6: seuratu da iñork kontrarik; 10/7: konbeni dana eziñ egindu; 10/8: besteren menden dagonak; 12/1: Guardiayarekin eraman naute; 12/2: andikan Lekunberrira; 13/1: Modu onetan gabiltzela gu; 13/4: bear dan ainbat testigu; 13/5: seuratu da iñork kontrarik; 13/6: oraiñ egiten ez digu; 13/8: onak eragin daizkigu; 16/5: nere astoa baño aundigo; 16/7: ezaguera ona zeukan.

Ta bertsoen ondoren onela dio:

"Ordu ezkeroz Bedaio'n astoak zinta gorritz apaindurik erabiltzen omen zituzten, ezagutzearren; ala aditu izandu det. *Ernaizu.*"

* * *

Errenteri'ko *Bertsolariya* astekariak ere bertso auek argitaratu zituan, bere 6'garren zenbakian, 1931.X.25'an, *Argia*'tik kopiatuta eta aurreko ta ondorengo argibide oiek gabe.

Aldaketa bakarra du; obeto esateko, eraskiña: guk bigarren izenburutzat ezarri degun ori eta berak ere izenburutzat ipiñi zuana.

BERTSO BERRIAK
“TXAKUR ORREN KASUAN AMAR
BERTSO BERRI...”

Amar bertso auek, Donostia'ko Jose Mante-rola zanaren bildumatik ditugu. Moldiztegi-izenik gabeko bertso-paper bat da. Bigarren izenburua gerok erantsia da, amargarren bertso-rik artuta. Bertsolariaren izenik ez da esaten. Urterik ere ez; baiñan bilduma orren asieran 1877 idatzita baitago, urte orretakoa edo leenagokoa izango da. Azken bertsoak dionez, saltzallea itxu bat izan zan.

1/Pasaia'ko gizon bat
gizon humanua,
frankeza aundiya du,
jeniyo sanua;
orren zakurrarentzat
eldu zait planua,
orain bertso berriak
jarritzera nua.

2/Txakur bat bazedukan
txit kuriosua,
agradatzen zitzaion
mokaru gozua;
askotan zelebratu
bijili osua,
amaika sufritzeko
jaio zan gaxua.

3/Txakurra ori zeguen
txarola batian,
mantenimentu ona
beti apartian;
gosiak ernegatzen
guardiyan atian,
aren konsuelua
naikua jatian.

4/Nagusiya juatian
otordubarekiñ,
festak egin nayian
asten zan arekiñ;
flakiya ta auldadia
gaxuak berekiñ,
nagusiya juaten zan
ezer gutxirekiñ.

5/Gizon ori omen da
ondo bizi dana,
kariño gutxi zuban
zakurrarengana;
gaxuak eztu pasa
bizimodu ona,
bera da zerbait ondo
gustatzen zaiona.

- 6/Bera ase ta bete,
zakurra gosiak,
etzituben egiten
otordu luziak;
gaxuak jakin ditu
pobrien klasiak,
premiyua nai luke
orrelakoxiak.
- 7/Txakurra orrek egin du
otordu ederrik,
lastimaz egoten zan
txarolan bakarrik;
postiarri lotuta,
geldirik alperrik,
apenas izan duben¹
aizatu bildurrik.
- 8/Asko sufrituba da
txakur gaixua ori
nagusiyaren faltaz,
gaxuak badiruri;
alimenturik etzan
iñondik ageri,
jaten ekiten ziyon²
bere korputzari.
- 9/Txakur ori egon da
beti auleriyaz,
eziñ alegratu zan
zelebrekeriyaz;
aurten ainbeste libra
izango zan iyaz,
gosiak akabatu
diyo miseriyaz.

¹ Bertso paperak: *gueldiaic alperric eta izandu duben.*

² Bertso-paperak: *jaten eguten ciyon.*

10/Txakur orren kasuan
amar bertso berri,
gazte jendiaentzat
libersiyogarri;
motibo gabetanik
ez ditugu jarri,
itxubak txanpon bana
emango ditu sarri.

KANTA BERRIAK
“MANDO BAT EROSI DU MERKE
DELAKUAN...”

Amabost bertso auk, Bonaparte'ren bildumatik ditugu. Moldiztegi-izenik gabeko bertso-paper batean daude.

Urterik ez da ageri; bertsolariaren izenik ere ez. Egilleaz gauza bakarra esan genezake: darabilen euskerak napar usaia duala.

13'garren bertsoaren erdia, eta 14 ta 15'garrena osorik, erderaz daude. Oiek, *cursiva* deritzaion letraz idatzi ditugu. Bi bider esaten duan beste esaera batekin ere ori bera egin degu: *macho valiente*.

Kanta berriak da bertso-paperaren izenburu bakarra; emen daukan bigarrengo ori, bigarren bertsoetik artua degu.

Migel Belarra izena duan Ernani'ko ostalari batek, mando bat erosten du; bai aguro saldu ere. Mando orren goraberak kontatzen dira bertso auetan.

- 1/Bertso bi paratzeko
artu dut ordena:
politak fundamentuz,
alík laisterrena;
irikitzera noa
nere almazena,
farraz zabalduko da
arrimatzen dena.
- 2/Ernani'ko Belarrak
bere ostatuban
mando bat erosi du
merke delakuan:
lakari bat zaldale
ta zenbait kuartuan;
usai gozoa dago
ura dan lekuan.
- 3/Tatxa bat du desperra,
esain dut zergatik,
zankua ariñago
altxatziagatik;
bigarrena gorra da
belarrietatik,
ez du ezer aditzen
paloz joka baizik.
- 4/Sorgin-koloria du
desfiguratuba,
bizkar-ezur guztiya
paloz puskatuba;
mandazai kastillano,
bruto ingratua,
borreren borrero
esaminatuba.

- 5/Ille guziya juana
 dana pelatuba,
 matadura bat badu
 pasten neurrikua¹;
 kostilletan barrena
 ijaran sartuba;
 ogei urte onetan
 ez da kuratuba.
- 6/Gure Migel Belarra
 zebillen inkieta,
 beldur deskana batez
 mundutik juateko;
 aren fuertzaren berri
 jakin balu zierto,
 lenengo feriya arte
 egongo zan suelto.
- 7/Gure *macho valiente*,
 al zuben moduban,
 salbentan jarri zuen
 kale publikuan:
 "Erostun bat baletor
 diruba eskuban,
 konponduko giñake
 aguro tratuban."
- 8/Orrelako suerterik
 ez genduen uste,
 tratuba zerratu da
 zikiruben truke;
 baserritar oriyek
 diruba zail dute,
 endemas zatarrrian
 beñ biltzen badute.

¹ Bertso-paperak: *posten nebricua*.

9/Feriyā ori egin ta
Orumia'ra asi,
alaja ori bidian
bazan nork ikusi;
danak merke zurriyan
nai zuten erosi,
egun biz txandatu'itu
iru lau nagusi.

10/Urumiar oriyek
tratu ona dute,
iraungo balu beste
ogei ta amar urte;
belarriyak zintzillik,
begiya ere triste,
irugarren deskanan
kontu emazute.

11/Deskana triste orrek
biyotzetik fuerte,
perlesiya gaiztuak
jo du derrepente;
alere beti firme
macho valiente,
bañon kausa gaiztua
formatu diyote.

12/Fiskalak eman zuben
itz batez akabo,
ez da enpeñorikan
orrenzat geiago;
orra kastillanuak
baño okerrago,
urera bota zuten
ill baño lenago.

13/Azkeneko pasada
funtziyo polita:
legorrari begira
uretik jaikita;
resucitatis mortis
otra vez repita,
mataron rematatis
lastima zan gisa.

14/*La vida de florete*
es muy agradable,
este verso dos cuartos,
otros son de balde;
ha hecho el testamento
pobre miserable,
para que haga buen viaje
hemos de rezarle.

15/*Otra vez no te vengas,*
tonto arriero,
ya has puesto en Hernani
bastante enredo;
Miguel Belarra está
comiendo carnero
los riñones robaron
pillos chapuceros.

“ENE ASTOTXU MANTXIÑE...”

Asierako doñu au eta lendabiziko sei bertsoak, Gernika'ko Julio Bareño jauna zanak bialdu zizkigun, 1959'eko Maiatzaren 9'an.

Bertsoen ondoren, argibide aukeratu idatzi zituan:

“La primera estrofa y la música (que le remito adjunto) me las proporciona Don Severo de Altube y dice que hace más de 50 años que él mismo y Don Resurrección María de Azkue las recogieron de una mujer anciana en Gautegiz de Arteaga (Bizkaya), pero que no sabía más estrofas, según les aseguró.

Todas las demás estrofas me las canta ahora Alejandro Onaindia, natural de Aulestia y de 72 años de edad (que no conocía aquella primera ni la música) y dice las aprendió en su niñez en su caserío del monte de Santa Eufemia (Aulestia).”



1/Ene astotxu mantxiñe,
jaio ziñian aintxiñe;
gure Peruk ei dauko
kuadratu eziñe.
Ikusi eta muziñe,
ez gaztie ixen baziñe.

2/Asto zarra ta elbarrie,
munduan parregarrie;
bost aldiz pasatu du
gose eta egarrie;
puntez bera belarrie,
nire begi-mingarrie.

3/Belarri makal pestie,
bata bezela bestie;
sekule dirurik ezin artu
izan arren ustie,
zergaitik etzan gaztie,
etxura bako trastie.

4/Benta onak uzten ditu,
zauri asko bistan ditu;
zakua ipiñitakuan
begi biak ixten ditu;
joaten ezin entenditu,
kargak bertan usten ditu.

5/Asto bat daukat saltzeko,
Pelix erostuna artzeko;
kuartotxu bi nai neuke egin
eskuartian sartzeko,

.....
.....

6/
.....
albaiterua asi jaku
nere kontra izketan;
ark esan dio nola dan,
ai egon balitz Malaga'n.

★ ★ ★

Iru bertso auk eta doñua, Oiartzun'go Juan Mari Lekuona'k emanak, oar onekin:

“Gure arreba Primitibak D. Klaudio Amundarain'i ikasiak dira. Don Klaudio au, Elduain'go semea, Araba'n, Ziriano'n zegoen apaiz 1936'garren urteko udaran. Orduko apaizen arteko jolasaldietan bertso oiek kantatzen omen zituena, eta Primitibak ikasi. Andik 42 urtera Aita Zabala'k bertso auk argitaratzeko asmoz zebilela esan zigun. Eta, ikusirik guk ere ezagutzen genituela, orduan jaso zituen bertso auk.

Orrela izaten dira bertsoen ibillera eta bide arrigarriak.”



Astua daukat saltzeko,
falta erostuna artzeko,
kuarto bi nai nituzke
eskuartean sartzeko.
Ustez ez nabil galtzeko,
desportuna det biltzeko.

Astua daukat zartue,
aitak etxera sartue,
orain emeretzi urte
mundu ontara sortue.
Orra urtien kontue.
Badauka eskarmentue.

Eskarmentuez jantzie,
merkatariek utzie.
Nik zerbait eskatu arren
ofrezimentu txikie.
Poltsa muturra itxie,
nik utsik daukat ontzie.



Azkue'k, bere *Cancionero Vasco* bilduman,
doñua ta bi bertso-puska argitaratzen ditu 667
orri-aldean, baiñan Mallabia'ko Aszenzion
Alberdi'ri jasoak dirala esaten du. Doñua ez da
Altube'k Bareño'ri eman ziona.

Andante mosso

Asto bat daukat saltzeko,
Peliz erosten asteko,
kuartotxo bi nai nituke
eskuartean sartzeko.
Geure astotxo zartxua
aitak etxean sartua.
Bost aldiz garbatu jako
berori ezagutua.

Bi bertsoaren puskak alkarri erantsita daude emen. Oso garbi ikusten da ori, Bareño'k eta Lekuona'k bialdutakoai begiratzen bazaie.

Ondoren onela dio Azkue'k:

“Debe ser la historieta de un burro vendido en una feria de Villafranca (G), que nuestro pueblo ha cantado con varias melodías. Ese Peliz erosten asteko es una mala inteligencia de Peliz erostun, Feliz comprador, que dijo el poeta¹.

En Fuenterrabía me dieron esta misma canción, con la melodía ligeramente modificada de Abenduaren amarraz, que figura en el grupo de “Canciones narrativas”. En esta versión figura también ¡cosa rara! Peliz erosten asteko. El quinto y sexto versos de la primera estrofa son:

enabil ustez galtzeko
deportunaz ibiltzeko.

En Mallabia sólo aprendí la primera estrofa. Estas otras dos son de la segunda versión:

Asto belarri tristea,
bata bezela bestea;
dirurikan ezin artu
izanarren ustea.
Zergatik etzan gaztea
itxura bako trastea².

¹ Gu ez gera iritzi orretakoak. Peliz izena dala garbi asko dago, guk uste.

² Azkue'k onela idazten du: *itxurabato trastea*.

Peliz bizi da Zegaman,
 astorik eztu eraman.
 Albeiteruak bazekien
 tratu orren berri boladan.
 Ark esan dio nola dan.
 Ai egon balitz Malagan!

★ ★ ★

Cancionero Vasco orretan, 533 zenbakian,
 beste doñu bat eta lenengo bertsoa ematen diz-
 kigu Azkue'k, Bizkaia'n, Forua'ko Maria Or-
 maetxe'ri jasota:



Neure astotxu maltzina,
 yaio zinean antxina.
 Pelizek dauko zurekin
 kuadratu ezina,
 ikusi eta mozina,
 ez, gazte izan bazina.

AUNTZARENAK

Sei bertso auek, izenburu orrekin, Loiola'tik ditugu, Aita Jose Inazio Arana zanaren (1838-1896) bilduma'tik. Azken orrietan daude, eskuz idatzita.

Baiñan ez dira orri oiek Aita Arana'ren denborakoak, geroagokoak baizik. Paperak, letrak eta tintak salatzen dute ori, baita ortografiak ere. Batedobatek bertso auek arkitu eta bilduma orretan sartuko zituan, eraskin bat bezela.

Baiñan etzuan idatzi bertsoak nundik zituan; ez-eta bertsoak jarri ziran urterik, ez bertsolariaren izenik ere. Ta zera oiek garbitzeko biderik ez degu guk beintzat ikusten.

Giza-izen bat ageri da: Joakin de Jauregi. Joakin Maria Jauregi izeneko bertsolari bat, 1844'an jaio zan eta 1921'an il. Baiñan ura Errenteri'koa zan, eta bertso auetan azaltzen zaiguna, berriz, "Billafranka'n dago serbitzari".

Bertso auei zaar-usaia artzen diegu. Badute, gure iritzirako beintzat. Xenpelarren betroia-
ren bertsoekin antz puska bat.

1/Orain bertso berriak
bear ditut jarri,
naiz izan nere gauzan
desondragarri;
entendituko bada
istoria ongi,
esplikatu bear det
zein naizen neroni:
Joakin de Jauregi,
orra esan garbi;
iñork ezer neri
nai badit ekarri,
Billafranka'n nago be-
re serbitzari.

2/Auntz bat juan dan urtean
nik erosi nuan,
nai ainbat esne izango
zualakuan;
familiar esnea
bear zan orduan,
sobra izango zala
pentsatzen genduan;
itxura bazuan,
alako moduan,
zer pozez nenguan
erositakuan;
gero auntza etxean ta
esnea auzuan.

3/Nere animalia
da berez naparra,
ez dedizkiot dala
oso baldarra;
gorputz egokia du,
ederra bularra,
frantzesak bezelaxe
luzea bizarra;
mardula ixtarra,
orobat bizkarra,
griña bat du txarra,
ura guztiz zarra:
duana emateko txit
du gogo txarra.

4/Ikuitzen bageñion
iñoiz errapean,
arren atzean iñor
ezin zegokean¹;
ostikoka asitzen
zan alegiñean,
il bear gu jetzitzen
asten giñanean;
eta azkenean,
jetzi ondorean,
etzan geienez
gure poderean
jikara erdi bat esne
baso ondorean.

(1) Bearbada, lerro onek bost silaba eskatzen baititu,
eta ez sei, ez zegokean bearko luke.

5/Ikusirik auntz ori
arren gaizki portatzen,
Nafarroa'n det orain
griñak mudatzen;
nonbait paraje orrek
obeto du artzen,
ia notizi onak
zaizkit allegatzen;
umeak azitzen
dela det aditzen;
naiz bada ezitzen,
ez naiz ni fiatzen,
erostun bat nai nuke
ta ez det billatzen.

6/Auntzaren ondrak orra
nik argitaratu,
erostunikan ez det
nai engañatu;
auntz-tratoan obe det
nik gutxitan sartu,
irabazi aundirik
ez det zer kontatu;
tratoetan galdu,
neroni alfertu,
egin naiz nekatu,
ta auntza ezin saldu;
obe det geiegi esan
gabe gelditu.

An da emen, oker zegoalakoan, aldaketa batzuk egin ditugu. Aita Arana'ren bilduman onela zegoan: 1/5: eten-duko bada; 1/8: zein nauen neroni; 1/11: iñork zer neri; 3/7: frantzesak bezelain; 6/2: nik argiratu; 6/3: erostunak ez det; 6/11: ezin naiz nekatu.

Ibaizabal astekariak, 42 zenbakian, 1902'eko Urriaren 19'an, sei bertso auetatik lau argitaratu zituan: 1, 2, 3 eta 4'garrena.

Aldaketak: Izenburua: Auntzaren bertsoak; 1/1: Bertso berri batzuek; 1/7: deklaratu bear det; 2/12: ni nere goguan; 3/1: Nere animala au; 3/3: nik ez deizkiot dala; 3/5: gorputza egokia du; 3/11: grifa zar bat txarra; 3/12: du bakar-bakarra; 3/13: duena emateko; 3/14: txit gogo txarra; 4/1: ukitzen badiogu; 4/3: ezin egon liteke; 4/4: aren atzean; 4/6: da alegifian; 4/7: oso nekatu bear; 4/8: asten geranean; 4/11: gure poderean; 4/12: etzan geienean; 4/14: baso ondarrean; 2/13: orain auntza etzean ta.

* * *

Gernika'tik ere etorri zitzaizkigun bertso auek, bertako Julio Bareño jauna zanak Alejandro Onaindia'ri jaso eta 1959. V. 9'an bialduta.

Aldaketak: Izenburua: Auntz esnetsua. Ordena: 1, 2, 4, 3, 5 ta 6'garrena. 1/1: Ipiñi biar ditut; 1/2: bertso bat edo bi; 1/3: naiz izan geure gauzan; 1/10: orra esanda garbi; 2/3: ainbat esne izango; 2/11: zer pozik nenguan; 3/3: ez deizkiot nik dala; 3/10: orra bat bizkarra; 3/13: duana emateko; 3/14: txit gogo txarra; 4/3: atzetik inor ezin; 4/4: an zegokian; 4/11: gure poderian; 4/12: etzan geienian; 4/13: txikera erdi bat esne; 4/14: baso ondarran; 5/2: ain gaizki portatzen; 5/3: Napparroa'n dot orain; 5/5: nunbait paraje arek; 5/10: ala det aditzen; 5/12: enaz neu fiatzen; 6/1: Auntzaren prenda orra; 6/11: neroni alperrik; 6/10: ez det nai nekatu; 6/11: tratuetan galdu; 6/12: auntza ezin saldu; 6/13: oba det danak esan; 6/14: gabe ixildu.

BERTSO BERRIAK

“NERE ZALDIYARENTZAT DOZENA BAT KANTA...”

Bertso auk, Donosti'ko Joakin Muñoz-Baroja zanaren eskutik izan genituan; beraren etxeke moldiztegian argitaratutako bertso-paper bat da: *Imp. de Baroja, Constitución, 1 y 2.*

Lenengo bertsoan esaten danez, kantak “argiyak para ditu itxubak esanta”. Beraz, bertso auen saltzallea itxu bat izan zan. Nor, ordea, ez dakigu; ezta bertsolaria, argia alegia, nor izan zan ere.

Itxuak eta bertsolariak artu-eman ugariak izaten zituzten alkarrekin. Alegia, bertsolariak bertsoak jarri eta itxuak saldu, bizimodua ateratzearren. Ikus gai oni buruz, Auspoa'ren 68-69-70.eta 106'garrena.

Amabostgarren bertsoaren ondorenean, sail berri bat asten da: bost bertso dira, lerro bat erderaz eta urrena euskeraz, aurreko bertsoekin zer ikusirik ez dutenak. Ala ere emen jarri egin ditugu, irakurleari paperaren bertso guziak ematearren.

- 1/Nere zaldiyarentzat
dozena bat kanta,
argiyak para ditu
itxubak esanta¹;
ezurak sano dauzka,
aragiya palta,
orain gizenduko da
zaldalia janta.
- 2/Itxubaren zaldiya
Bizkaia'n artuba,
abariñase onekin (*sic*)
genduben tratuba;
ogei ta amar errial
diruz pagatuba,
oraiñ ere badauka
nork begiratuba.
- 3/Zaldiya ta alboka,
gero kabrestubak,
ogei ta emezortzi
errial justubak;
kate eta gañera
bireko gastubak,
etxera giñaneko
sagelak ustubak.
- 4/Errejistatu zizkan
barberuak ortzak,
esan ziran: "Oraindik
dakazki zorrotzak".
Bestiak bazterretik:
iya illik otzak,
ez duela gortuko
kukuaren otsak.

¹ Bertso-paperak: *esanda*

5/Allegatzen bazaio
iltzeko garaia,
zer egiñ pentsatuba
dago mandazaia:
ontzaz baliatzera
obeko det saia,
larrubak ere badu
zorro baten gaia.

6/Bizirik etortzia
ez nuben espero,
zutik eziñ altxatu
erori ezkerro;
beste komeriya bat
egiñ degu gero:
zaldiya utsik eta
itxuba kargero.

7/Bizkaia'tik etxera
giñaden abiya,
nere zaldiyak zeukan
pausaje nagiya;
ezurrak zorrotz eta
palta aragiya,
itxuba argitzeko
ai zer gidariya!

8/Itxuba atzetikan
arri dili dale,
jendia guri parrez:
"Caballo no vale".
Sufritu du amaika
gose eta gale²,
oraiñdañon ez du jan
poto bat zaldale.

² Bertso-paperak: *gose ta bale*.

9/Andria jarri nuben
aurretik giyari,
esan ziran: "Frantxisku,
kontu zalduyari".
Erresponditu niyon:
"Agurka da (y) ari,
ez natzaio piyätzen
alimaliyari",

10/Erostunak etxera
zaizkigu azaldu,
ontzerdi bat urrian
nai banuen saldu;
ez daukat emateko
naiz tratuban galdu,
maiatzeko belarrak
gizenduko al du.

11/Beste bentaja batez
ornituba dago:
txikiratu gabia,
orra esan klaro;
maiatzeko belarrak
jatian kuidaro,
itxuba lurrera ta
gitarra akabo.

12/Nere animaliya
dago indartsua,
zer gertatuko zaion
bildur da itxua;
ez bazaio meditzen
obeki pentsua,
ostikoren batekin
ilko dik atsua.

13/Nik esanagatikan
makiña bat kontu,
ostikuaz iltzeko
ez bildurak artu;
kargak aundiyak eman,
premuakin lotu,
saltorik egin gabe
egongo da gertu.

14/Aurtengo primaberan
iru urte ditu,
indarretan sartu da,
odolak berritu;
ille zarrak jua zaizka
begiyak argitu,
geiegi esan gabe
obe det gelditu.

15/Orra amabost bertso
euskeraz paratu,
nere zaldiya ezta
gaizki alabatu;
zerbait esanagatik
ez inkomodatu,
amar zentimo papera
nai dubenak artu.

★ ★ ★

1/*Canciones modernitas*
Euskal-errirako,
castillano y vascuence
ditut aterako;
una cosa chocante
pasatu dalako,
y también escarmiento
beste baterako.

- 2/ *Ayer noche pasado*
 komeri polita,
 para perder sombrero,
 gañera lebita;
 sofocado se vino
 birian korrika,
 cinco chicos le dieron.
 atzetik arrika.
- 3/ *Cuando llegó a casa*
 ixillik nai zuan,
 pasó las escaleras
 iru o lau pausuan;
 pronto le preguntaron
 zerbait ote zuan,
 “Ladrones me han salido”
 berak esan zuan.
- 4/ “¿Dónde te has estado?”
 esan zion amak.
 Sin vergüenza responde:
 “Kortejatzen damak”.
 “Para que no se pierdan
 len dauzkatzun famak;
 cuánto tendrá que sufrir
 zurekin daganak”.
- 5/ *La madre reñiendo*
 afaltzen mayian,
 su hijo de amores
 mudatu nayian;
 el chico apedrado
 ojuka oyian,
 las flores que se ingendran
 beren sasoyian.

KOPLA ZAR BATZUEK

ASTO BATEN TRATUARI JARRIAK

Ogei ta bat bertso ditugu oraingo ontan. *Ibaizabal* astekarian arkitu genituan 78'garen zenbakian, 1903'eko Garagarrillaren 28' koan.

Izenburua, or goien ezarri degun ori bera ipiñi zion *Ibaizabal* orrek ere. Guk aldaketa bat egin degu. *Ibaizabal*'ek *kopla tzar batzuek* idazten du. *Tzar* orrek, txar, trakets, baldar esan nai du. Norbait edo zerbait goraldtu naiz ez degunean erabiltzen degu. Ta auek ez dira bertso. *tzarrak*, onak baizik, gure iritzirako beintzat. Orregatik, *zar* idatzi degu guk. Orrela, antziñakoak dirala adieraziko du: besterik ez.

Ibaizabal'ek ez du esaten nundik dituan. Bertso-paperen batetik, seguru aski.

Lenengo bertsoan esaten danez, Oñati'ko gertaera da. Pedro errotaria bere anaiari kantari asten zaio. Ain zuzen, bertsoen bukaeran, firma bezela, izen-deitura auek irakurtzen dira: Pedro Villar Inchausti.

Pedro orren anaiak, Leintzeko erri batera joan eta ogei errealean asto bat erosi du. Baiñan etxera sartu orduko ajeak azaldu. Ori da bertso auen gaia.

Amalaugarren bertsoan, beste izen bat aitatzen da: Alejandro. *Ibaizabal*'ek dionez, ori albaitea zan. Ogeitabatgarrenean, berriz, Luis Arrazola. Ori kurtidorea zan. Abizen ori duanik, asko da gaur ere Oñati'n.

Amabostgarrenean, ostera Oñati izendatzen da. Ez dago, beraz, zer duda egin, nungo bertsoak diran. San Pedro zelaia ere bertso berean aitatzen da. San Pedro izeneko ermita bada Oñati'n, Zubillaga ballaran.

1/Oñati'ko errian
Pedro errotari
bere anaiarentzat
jarri da kantari,
zer modutan egin dan
asto-merkatari,
erreparatu gabe
daduzkan faltari.

2/Komerzianta ori
Oñati'n da bizi,
ogei bat bertso zeñek
dituan merezi;
eskribitzera noa,
nai dunak ikasi,
bost pezetan nola dun
astoa erosi.

3/Asto orren kontuak
dirade aundiak,
aditu naiko ditu
munduko jendiak;
sano izan balitu
bere alderdiak,
etzuben aterako
etxetik jabiak.

4/Leintzeko erri baten
egin du tratua:
ogei errealean
erosi astua;
nere ustean ori
bai mutill prestua,
aitari emateko
orrek in gustua.

5/Gure anaia orrek
dauka fantasia,
astoa zekarrela
lanean ezia;
denbora luzerako
badauka bizia,
ongi izango dala
orren nagusia.

6/Indarrez alabatzen
du alegiñian:
iru anega baietz
eraman gañian;
baldin dadukan falta
ezpalu oñian,
asto oberik ezin
izan España'n.

7/Aitari entregaturik
astoa errotan,
esanaz erabilli
dezala zorrotan;
indartsua zala-ta
sinistamen ortan,
alabantza aundian
sartu zuten kortan.

8/Iñauterietako
au zan astelena,
lanean probatzeko
kargatu zutena;
astoak egiñarren
berak al zuena,
agudo juateko
artzen zuan pena.

9/Agurka ta errenka
nolabait abia,
buruak zirudian
olako gabia;
ateratzen ezpadu
ibilte obia,
denbora gitxiko du
oraingo jabia.

10/Ogei erreal kosta
gañera alboka,
nai baño ezin jaso
albarda ta soka;
belarriak zintzilik,
atzekia loka
laister jarriko dio
makillakin joka.

- 11/Ai ori astoaren
ibilte-modua!
Guziari agurka
darabill burua;
fantasietarako
joan zaio gogua,
ia ez du urruti
iltzeko ordua.
- 12/Ikusirik astoa
lurrean etzanda,
erabaki gogorra
orrentzat izan da:
familian ez dezan
eragin demanda,
etxetik biraltzeko
ederrak emanda.
- 13/Ai ori sententzia
ikaragarria!
Oraintxen bai daduka
istillu gorria;
len ankatik zegoan
oso elbarria,
ez diotela nago
egingo berria.
- 14/Anaia, adi zazu
neronen esana:
astoa eramazu
Alejandrogana¹;
ark osatu eta zuk
emaiozu jana,
bearbada oraindik
egingo du lana.

¹ Abere-sendararia edo albeiteroa. (*Ibaizabal*'en oarra)

15/Orrela sendatuta
jartzen dan garaian,
belarrez aseko da
San Pedro zelaian;
Oñati'n ezpadago
iñor artu naian,
saldu zazu Araba'n,
bestela Bizkaia'n.

16/Aragonesak sarri
dirade azaltzen,
baratxuriak eta
tomateak saltzen;
ea, eskeñiezu
ote duen artzen,
malamente duroa
ez dezagun galtzen.

17/Etortzekuak dira
amalau ijito,
aiekin tratatzea
zenduke lizito;
esan zaiozu dala
bueno ta bonito,
ea egiten dezun
oriekin kito.

18/Ez noa esatera
orren edadea,
ez galtzeagatikan
saltzeko bidea;
bizirik artzen badu
aurtengo udea,
orra baliatzeko
naikua idea.

- 19/Astoa erosi du
bere ustez merke,
baña garesti dala
nik esango nuke;
nire iritzirako
saldu obe luke
peskadera bateri
legatz baten truke.
- 20/Burua dauka ia
lurrera jetxian,
pozik eman lezake
interes gitxian;
erregalo egizu
markesen etxian,
pasea dezatela
orrekin kotxian.
- 21/Markesak nai ez badu
etzaio ajola,
erakutsiko dizut
enpleatu nola:
orra kurtidorea
Don Luis Arrazola,
emaiozu larrua
kendu degiola.

Pedro Villar Intxausti

BERTSO BERRIAK

JOSE JOAKIN ETA JOSE MARIK JARRIAK

Bertso-paper au, Tolosa'ko Isidora Moko-roa'ren eskutik jaso, *Eibar.-Imprenta de Pedro Orúe* moldiztegian argitaratu zan. Izenburuak, bertso-jartzalleen izenak ematen dizkigu; abizenik ez ordea. Erririk ez da esaten; urterik ere ez. Gauza bakarra atera diteke: bertso auek Gipuzkoa'ko euskera dute, baiñan bizkaieratzen asia. Deba ibaiaren aldeko gertaera izango da.

1/Bertso berriak jartzera guaz
arturik geure idiak,
denbora errez bialdutzeko
zer dira gauza obiak?
Ondratutzia pentsatu degu
gauden festibidadiak,
alegrentzian pasa ditzagun
aurtengo Trinidadadiak.

- 2/Kaminerako etxe atzian,
 erriu arren onduan,
 lengo jai baten komedia bat
 antxe ikusi genduan;
 nun-nai bezela ure-gala zan
 txopo luze bat zeguan,
 orrelakorik etzan pasauko
 oingo gizonen goguan.
- 3/Alimani bi juntatu ziran
 alkarren gorrotokuak,
 beren denporan ondo aziek,
 ederki gobernatuak;
 San Antoniok beren mendian
 zeduzkan anparatuak,
 piztia oiek ara zer ziran:
 kamineruko katuak.
- 4/Txopua bazan gutxien gutxienaz
 berrogei metro luzian,
 bi katu oiek punta-puntako
 adar bitan jarri zian;
 kararik kara begiratuaz
 alkarren bildur etzian,
 aiek etziran andik jatxiko
 goserik izan ezian.
- 5/Jai artan bertan soldadu zarrak
 jarri ziran guardian,
 fuego lentuan jardunak dira
 iru egun da erdian;
 zenbat denbora igaro zeben
 bein jarri ziran tokian:
 ostegunian igo ta jatxi
 domeka-eguardian.

- 6/Eguna ere suzeditu zan
 aproposa artarako
 begiratzia baño señale
 oberik ez det parauko;
 Asentzio zan señalamente
 danok goguan artzeko,
 kuidado ona zeukan jendiak
 kreduak errezatzeko.
- 7/Nik dan bezela esplikatzen det
 zeaitik ez diran inporta,
 pasa bezela ipinitzeko
 enkargatua nago-ta;
 muniziuua gastatu arte
 or jardun dira tiroka,
 beren aldarez jatxi artian¹
 ez dute katurik bota.
- 8/Muniziuua bolada baten
 eduki dabe abasto,
 baña gizonen apunteria
 ez da baliatu asko;
 punta-puntako erromillota
 kendu diote ain justo,
 txopo gaixue domatu dabe,
 ostruak zimeldu zaizko.
- 9/Eguna juan da eguna etorri-
 katuak nunbait gosiak,
 galdu gordian saltatu dira,
 itxura badu gauziak;
 txopo-puntatik erreka ondora
 egiñik salto luziak,
 ura eran da beste aldera
 ez dira manso pasiak.

¹ *Aldarez orrek ez ote luke auldarez bear? Alegia
 goseak dakarren auldadeaz.*

- 10/Dударик gabe gizon oietan
 baziran nobedadiak,
 etziran bada armamentuan
 eskarmenturik gabiak;
 soldau izenak baldin badira²
 alako tiradoriak,
 bertan utzita etorri ziran
 ango abilidadiak.
- 11/Bi katu oiek zeukaten alkar
 ezin ikusia begiz,
 unio oberik ez baldin bada
 ez dabe igoko berriz;
 biak alkarri desapiua
 egiñak dira bost aldiz,
 oiekin zeñek aguentatu
 Otsailla izan balitz?
- 12/Obedentzirik eztan medioz
 orra zenbaten galera,
 aien orduko saltatutzia
 izan da malamanera;
 alkarrengana zeukaten aiek
 izugarrizko kolera,
 or juañ dira bata etxera ta
 bestia berriz kalera.
- 13/Onetaraño etorri gera,
 berriz nai bada segitu,
 ustez egiaz ibili gera,
 gusto duenak aditu;
 erri auetan orrelakorik
 apenas da suzeditu,
 ainbeste tiro tirata ere
 katurikan ez eritu.

2 Bizkaitar fonetismoa, dudarik gabe, *izenak*; berez, *izanak* bear luke.

- 14/Gezurra zertan esango degu
 miñik gabe alperrikan?
 Jangoikuari graziak eman,
 ez da izan okerrikan;
 gu engañatu baldin bagera
 ezkerade bakarrikan,
 baña gure ustez eztegu esan
 bat ere gizurrikan.
- 15/Bertso berriak ipiñirikan
 eman nai det despedida,
 ejenpluari egin nai diot
 tokatzén zakon segida;
 akaso batzuk esango dute:
 “Oiek orrela ez dira”,
 baña testiguz probatuko det
 gizurrak baldin badira.
- 16/Amaseigarren bertsuarekin
 nai nuke adierazi:
 luju aundirik ez dadukagu,
 ez txapelikan erantzi;
 prezisuetan enteratu naiz
 orretarako lenbizi,
 papel bakotxa amar zentimo,
 gusto duenak erosi.

Oker zeudelakoan, onako auek zuzendu ditugu; 1/6:
 gende festibidadiak; 1/7: alegrensia pasa dizagun; 3/3:
 beren denporan ondo asie; 4/5: cara in cara beguiratuas;
 6/3: beguiratzia baño senalle; 6/6: danoc goguac artzeco;
 12/1: Obedentzeric eztau medios.

KATUARENAK

Zortzi bertso auk, beren izenburu orrekin, Gernika'ko Julio Bareño zanak bialdu zizkigun, 1959'eko Garagarrillaren 26'an, aurretik argibide au idatzita:

“Oneik bere Alejandra Zubizarreta'k abestuak dira: 89 urte.”

Aurreko orri batean bertso batzuk bialtzen zituan, ondoren beste oar luzeago au erantsirik:

“Alejandra Zubizarreta eta Arostegi, Amoroto (Bizkaia'n) jaioak eta gaur 89 urte dituzanak abestu dauz aldra bi oneik, eta bera neskatotxua zala bere aitagandik ikasiak dirala diño.”

Damurik, Bareño jaunak etzion amona orri doñurik jaso; bialdu beintzat etzigun egin.

X/Txantonek ei dauko
katue formala,
geuk bere eztaukagu,
morena,
entero argala.

- 2/Berrogetamar erralde,
zerbait gitxiago,
errotako pixutan,
morena,
pixuturik dago.
- 3/Gantzak ere bazituzan
ikaragarriyak,
begitanduten jatan,
morena,
errotako arriya.
- 4/Goiko sala barrian
eman nion gatza,
artuko ete zuan,
morena,
neukan bildur gatxa.
- 5/Bare-saria barriz
pitxar bete koipe,
gaztia, entzun dozu,
morena,
beste orrenbeste?
- 6/Abadiari eman nion
erregaluz mortzilla,
ezpanak koipeztauta,
morena,
a dabil mutilla.
- 7/Surmintz eta belarri
San Kristobal'eko,
auzoko neskazarrari,
morena,
erregalatzeko.

8/Buztana ere badu
kane t'erdi luze,
burdiyen sokatzako,
morena,
gordeta ei dauke.

★ ★ ★

Azkue'ren *Cancionero Vasco*'n ere badago
kanta au, 518 zenbakian, Aramaio'ko Zalgo'n,
Silbestre Bengoa'ri jaso:

Allegretto

1/Jose Mondragonek dauko
katua *por gala*,
geurean bere eztago ta, Monona,
ain bere ta argala.

*Ay sí sí, ay no no,
markeroliño, marketxuleta,
marketxo txuria no.*

2/Berrogeta amar erralde
zerbait gutxiago,
errotako pisuetan, Monona,
pisaturik dago.

3/Goiko sala barrian
emon notsan gatza,
artuko ete dostan, Monona,
daukat bildur gatxa.

4/Irrietan arrauetan
zortzi egun onetan
gure andrak derautse, Monona,
koipeak urketan.

5/Iru sebo-opiltxo ditu
irurak andiak,
iruditen jat niri, Monona,
errotako arriak.

6/Anaiari bialdu notsan
erregalu mortzilla,
ezpanak koipatuta, Monona,
an dabil mutilla.

7/Surmintz eta belarriak
ondo gordetako,
auzoko jenteentzat, Monona,
San Kristobaleko.

Ay, sí, sí..., etc.

Aranzazu aldizkarian, 1969'eko Apirillean, bederatzi bertso agertu ziran. Oso aldatuta daude, baiñan kanta au bera dala dudarik ez da.

Izenburua, *Joxe Mondraue'na* dauka *Aranzazu* ortan, lenengo bertsoa izen orrekin asten dalako. Ondoren, argibide luze au:

“Araotz-ko folklore-gaiak biltzen asi nintzanean, mutil au izan zan aurreneko aleak eman zizkidana. “Joxe Mondraue'na”, berriz, lenengo. 1967'go Abenduaren azken aldean zan. Lukainka oraindik egin-berriak eta odoloste zimeltzen asiak ageri ziran Txomena'neko sukaldean. Giro artan jalki zidan kantu au. Txerri-aparitakoan ensaiatua bide zuan. Bali-teke Oñati'n bertso ta doñu ok ezagunak izatea, baiña bilduta ote daudenik ez dakidanez, jaso egin ditut, bada ezpadan. Doñua ariña ta alaia da; bertsoak, berriz, irri-bertsoak dira, txerri-iltze ondorengo festa-giro beroak sortu ta onduak. Oraindik gutxi dala kantatu zidan azkenengo koplak, apirillaren 26'an ezkontzen zala esan zidanean. Ederki. Kaiolan ditut bi txori. Eskerrik asko batari, zorionak besteari. B.G.”. Aita Bitoriano Gandiaga alegia¹.

¹ Ez du izenik esaten; baiñan orri berean mutil gazte baten argazkia dago, eta azpian izen-abizen auek irakurtzen dira: *Xabier Guridi*. Berau izango da kanta au eman zuana.

Ta ondoren doñua ta urrena bertsoak:



1/Joxe Mondraue'k dauko
*txerria por gala*².
Guk ere t'eztaukegu,
monona,
ain bere argala.

2/Ogeitaxei erralde,
zerbait gutxiago,
errotako pixuan,
monona,
pixaturik dago.

3/Iru sebopil zeukan,
irurak aundiak,
iruritu lezake,
monona,
errotako arriak.

² *Aranzazu*'k: "*txerria a por gala*". Baiñan neurri-rako-ta, guk idatzi degun bezela bear du. Bigarren "*a*" ori *txerria* itzaren luzapena izango da.

4/Gure andrak or xabiltzak
zortzi egun onetan
firrii eta farra,
monona,
koipiak urketan.

5/Irurogei ta amar murtzil,
guziak aundiak;
ikaraturik daude,
monona,
auzoko gaztiak.

6/Anaiari bialdu xiat
erregalo murtzilla,
ezpanak koipaturik,
monona,
a xabilk mutilla.

7/Surmintz eta belarri
ondo gordetzeko,
auzoko gaztientzat,
monona,
Sakristobal'erako.

8/Goiko sala berrian
eman nion gaitza.
Ostuko ote duan,
monona,
daukat bildur gaitza.

9/Buztana ere badu
kana bete luze.
Gure auzoko gaztiak,
monona,
soka gorde dute.

Gerok ere jaso genituan bertso auek Araotz'-
en, bertako Azkoiti baserrian. Aitatzetik merezi
duan aldaketarik gabe jaso ere, baiñan beste-
tan ez dagoan bertso onekin:

Oge errial eman zidan
batek bere laña,
uraxe izan zan neretzat,
monona,
pagua ta zelaña.

BERTSO BERRIAK

ASTO BATERI JARRIAK

Amasei bertso auek, or goiko izenburu orrekin, "*Portugalete.-Imp. de M. P. Escartin - Teléfono 3.010*" moldiztegitik ateratako bertso-paper batetik ditugu. Bertso-paper ori, Leioako Eulojio Bidea'rengandik izan genduan, Bilbo'ko Alfonso Irigoyen'ek bitartekotza eginda. Egillearen izen-abizenik ez da esaten; ezta bertsoak noiz jarriak diran ere.

1/Bertsuak ipinten nua
asto zar batentzat,
komeniko dirala
iruritutzen zat:
zer esana naikua
ipiñi du beintzat,
kontu parregarriak
leiduten dunentzat.

2/Asto eme bat Lejona'n
egon da saltzeko,
merkataria naikua
izen du artzeko,
nok kobratu asko ta
gutxi pagatzeko;
orregaitik bertsuak
nago ni jartzeko.

- 3/Kobratzeko dauana
aurkitzen da larri,
dirurikan etxera
ezin du ekarri;
orain kulpak ipinten
dabiltzez alkarri,
nor astuo diraden
ezin leike igarri.
- 4/Lenengo erriojanu bat
zan astu orren jabe,
beste laurok sozio
gero ein dirade;
bat formal antzekua
eurokin badebe,
bañan bestiok mozkor
galantak dirade.
- 5/Erriojanu orrek astua
egin zuan saldu,
merkataria nor zan
eztot nai azaldu;
etxera ekarri bai baña
auguro bialdu,
etxetik arin kentziaz
eztu asko galdu.
- 6/Irugarrenez Donatok
egin du tratua,
ogei ta amar pezeta
pagadu astua;
etxera eman baño len
dago damutua,
berak saldu artian
larri egondakua.

7/Irabazi bageko lanak
eztute baliyo,
danok tratamenturako
ez gerade jayo;
engañatu artian
seriyo-seriyo,
arek berriz Antoniori
enkajatu diyo.

8/Azumbre erdi bat ardau
geio pagatuta,
Antonio gelditu da
konprometituta;
a bere laster zeuan
ondo damututa,
irabazteko ustian
astua salduta.

9/Artu orduko danok
aspertu dirade,
laste bota du etxetik
Antioniok bere;
iñok eztu nai traturik
irabazi gabe,
danon artian Apala
kargatua debe.

10/Bostgarrengoz Apalak
egin du erosi,
pagatzeko kontuan
bera da nagusi;
Antioniok bere zerbait
badu irabazi:
kafia kopiarekin
puru eta guzi.

11/Orain astuen jabia
zu zera, Apala,
ondo kuidatzen badezu
etzera makala;
entzun det umia bere
eiteko dauala,
arek irabaziko du
zuk gastatu ala.

12/Alkarren antzekuak
guztiok dirade,
tabernarako biriak
ikisita daure;
gastu guztiak kontuan
jartzen badirade,
astuak eztu balio
ardotako bere.

13/Euren korredoria
da Sarria zarra,
ori bere eraten
apenas da txarra;
Apala esandako
berbakua bada,
astuak umia eitian
zelako mozkorra!

14/Federiko dago barriz
papelak saltzeko,
ark bere esperantzia
zeozer artzeko;
asko sobratuko balitz
errepartzeko,
zerbait berko da astua
governatutzeko.

15/Federiko asto gañian
egingo da jarri,
papelak errepertitzen
erosten dunari;
ezagutu nai duenak
gure asto ori,
Andre Mari egunian
Ondizera etorri.

16/Geiago bertsorikan
ez nua esaten,
onekin despedida
nua ni ematen;
gusto duenak jakin
etorri erosten,
amasei bertso barri
txakur andi baten.

“TXAKUR AMATUA DA...”

Sail onek, bina puntuko bertsoak ditu. Olakorik gutxitan egin izan dute bertsolariak. Orregatik, duda egiten degu auek bertsolari jator batek jarriak diran.

Bilbo'ko *Euzkadi* egunkarian agertu ziran, 1932.X.29'an, *Miren Agurne* firmatzen duan batek bialduta.

Garai artan bizkaieraz oi zanez, “j” erabil-tzen du zenbait aldiz: ardi-jari, juizijuban, eri-jotza. Guk ere orrela idatzi degu.

Izenburua onela du *Euzkadi*'k: *Bertso za-rrak Zaldibartik*.

Guk, lenengo bertsoaren asiera berezi ta ezarri degu orretarako. Baiñan *Euzkadi*'k dionak, bi gauza erakusten dizkigu: bertsoak nundik datozen eta zaarrak dirala, bialdu zituanaren edo egunkariaren iritzirako.

1/Txakur amatua da,
ixena du Blanco,
eztauka minpekorik
artua badauko.

- 2/Artuakin bakarrik
eztala kontentu,
auzora jua eta
olluak jan ditu.
- 3/Jan-gauzerik onenak
eskojitzen ditu,
arrautzak be beretzat
billatzen baditu.
- 4/Bilots bat auzuan da
beste bi etxian,
irurak jan zituan
denpora gutxian.
- 5/Ganera ardiari
jarraitu atzian,
gaizki egiten ebanik
berak etzekian.
- 6/Paluak emon diot
odoldu artian,
juizijuban sartu da
neure eritxian.
- 7/Orain eztala juaten
ardijen atzian,
kirrikiyuak topatzen
dituela sasian.
- 8/San Prudentxi eguna
zelebratu zuan,
bakallua gendukan
beratzen potzuan.
- 9/Gu akordatu orduko
guzia jan zuan,
gazitasuna zer zan
aprobatu zuan.

- 10/Sukaldeko galdarak
utsitu zituan,
beste ekin-aldi bat
egin du potzuan.
- 11/Gaba pasatu eta
urrengo goxian
gure txakurra zegon
estadu tristian.
- 12/Azurren bat zeukala
trabauta estian,
etzala sosegatu
libratu artian.
- 13/Gaztañak eta saldia
jaten dituanian,
uzkerrak botatzen dauz
basora bidian.
- 14/Barrez ito lezake
aren esturian,
pausuko bat edo bi,
iru geienian.
- 15/Barre asko egin gendun
juan dan neguban,
neskatxiaren oian
billatu genduban.
- 16/Neskatxa apaldu ta
ogera zan juan,
txakurrak ogetikan
mur-mur egin zuan.
- 17/Neskatxa bildurtuta
sukaldera larri,
ogeko lagunari
etzion igarri.

18/Argia piztu eta
juan gura dau arin,
oian tenplau lo eguan
gure txakur ori.

19/Neskatxa asarratu
egin zan orduan,
makilla artu eta
txakurra il zuan.

20/Txakur orren bixitza
olantxe izan da,
eriyotza be or nola
neskatxak emanda.

Ernani'ko Ramon Apaolaza zanaren bilduman. ma-
kinaz idatzita agertu dira bertso .auek.

Izenburua onela du: *Nere txakurra*. Ta bertsoen azpian
onela dio: *Zaldibar'en abesten dira oleski oiek*.

Gure iritzirako, Apaolaza'k ere *Euzkadi* egunkaritik
artu ditu bertso .auek, bizkaieratik gipuzkoerara itzultzen
baditu ere. Orregatik, aitatzetik merezi duan aldaketarik
ez du, onako .auek izan ezik: 5/3: gaizki egiten zunik;
6/1: Paluak eman dizkat; 6/3: juiziyuan sartuba; 6/4: da
nere ustian; 9/1: gu akordatzerako; 12/2: trabeska estian;
13/3: puzkerrak botatze'itu; 14/1: Parrez ito liteke; 18/2:
jun giñaden sarri; 18/3: oiean lo zeguan; 20/2: orlaxen
izan da; 20/3: ta orla eriotza.

BEI ANTZUENAK

Bertso auek, Gernika'ko Julio Bareño jauna zanak bialdu zizkigun, 1959.II.25'an. Etzigun esan nori edo nun jasoak zituan. Amar bertso dira, eta, amargarrenak dionez, "amabi bertso-rekin akabatutzen da". Beste bi ere baziran, beraz. Norbaiten aotik jasoak izango dira, eta arek beste bi oiek aztuta eduki.

- 1/Bertso barri batzuek egiteko jarri,
Anastasio ta Karlos dabiz barragarri.
Errematian artuiko bei baltz txiki ori,
antzue dalakuan urten dau ernari.
- 2/Galdakao'ko errian errematau ei zan,
bei ori artu ebana Andres Larrea zan.
Andik amasei egun tardau txala eitan,
jentia bai orregaz desengañatu zan.

3/Gabeko bederatzietan
larritu zan beia,
an zegoan Andres ta
bere koñetua.
Orroa ta orroa
bei ori entzunda,
larritu zan Antoni
galduko zan beia.

4/Andresek esan eutsan
bere emazteari:
“Ointxe ein biar du eta
argia eutsi zeuri”.
Indar mortalak eiten
asi zan bei ori,
andik laster txalaren
bistan kadera bi.

5/Andres ta koñetua
beiari laguntzen,
Antoni kurtzulutzet
argiari eusten.
Amaika ta erdietan
txala jaio ein zan,
Andresen kontentua
andia izan zan.

6/Ama eta koñeta
abisau zituen,
txal onen etorrera
ikusi ein deien.
An eukien guztiek
txal ori erdien,
poz andi bat arturik
barre egiteurien.

7/Zorioneko txala
jakuna etorri,
bertsuak jarritzeko
bei baltztxu oneri.
Zezeillen amazpian
izan da egun ori,
poz andia emoteko
Andres Larrea'ri.

8/Txit poz ori izan da
ezin andiagua ba,
ondiñoko esana
egi argia da.
Erri guztia egon da
kontra guregana,
bei ori ernari eztala
eun erleko bana.

9/Aur onetan pasau dan¹
istori andi ori,
alabantzak emonaz
bai baltztxu oneri.
.....
.....
txal orren etorreran
santifikau bedi.

10/Aita San Antoniok
bakia ein dau ba,
txal zekor eder einda
jentia ixildu da.
Amabi bertsorekin
akabatutzen da,
txal onen etorrera
onela izan da.

¹ Bearbada *aurre onetan*, edo *aor* (ara-or) onetan;
oraindik-orain-edo.

BERTSO BERRIAK

(TXAKUR BATEN KONTUAK)

Amasei bertso auek, Manuel Lekuona apaiz jaunaren bertso-bildumatik ditugu, *Guernica-Imp. de A. Egurrola* moldiztegian argitara emandako bertso-paper batetik.

Emen ezarri degun bigarren izenburu ori, gerok erantsia da, lenengo bertsoetik berezita.

Bertso auetan ez da egillearen izenik esaten; ezta zein urtetan jarri ziran ere.

Bertsoak bizkaieraz daude eta esaldi guziak ez genituan guk beintzat ondo ulertzen. Orrezaz gaiñera, seigarren bertsoan "Uspitxe al-dian" esaten da, eta, Usparitxa Balendin Enbeita bertsolariaren jaiotetxea izanik, Muxika'ra joan giñan arratsalde batean, ura bezelako argitzallerik nekez billatuko genduala pentsaturik.

Lenengo, Usparitxa dala-ta, onela esan zigun:

"Usparitxa, orain Barrio Usparitxa esaten da, baiña ni jaio nintzan etxeak berak dauka Usparitxa-jauregi izena.

Orain irureun urtera arte, torre bat zan, eta torre aretan bizi zan Agustin izena eukan andiki bat, bere emaztearekin; sendirik ez eukan.

Antza, torre ori izango zan lelengoetarikoa, ze, Zenarruza'ko kolejiatan eukan bere kapilla eta ara joaten zan meza entzuten, bere senarra il da gero, señora ori. Eta gaur arte, kolejiata orretan dagoz Usparitxa'ko sepultura bi, eliza-ren barruan, euren izen-abizen da danakin.

Eta torre ori jauzi zanean, Enbeitatarrak egin eben ango baserria jaso. Irureun urte dira, eta irureun urte orretan ez da Enbeitatarren abizenik aldatu. Gaur bere, Enbeita'k jarraitzen dau.

Ortik jatorku Usparitxa kopradia guztiari Usparitxa-jauregi izena. Usparitxa'n dira bost etxe eta zazpi bizimodu edo bizitza. Gaur sei dira; batzuk alderdi baten il eta ori utsik dago. Baiña gaur bere, baserriakaz jarraitzen dabe usparitxatarrak."

Urrena, bertsoak irakurri ondoren, onela esan zigun Balendiñek:

"Guk bere egiten genduan ori gaztetan. Zera, besteak poteak esaten dabe, konserba-poteak, baiña emen tengak eta txoletak bere bai. Piper-poteetako tengak txakurrari buztanetik lotu, eta emon latigua eta bialdu. Ta an joaten ziran ba, buztanean tinkili-tankulu, txakurrak ariñeketan. Txakurra bildurtu egiten zan eta ez zan geiago etorten. "Ai ai ai ai, ei ei ei" joaten zan, da pipapan-pipapan poteak, tengak, eta txakurra galapan.

Txoleten barruak bete ei ziran arriakin edo dana-dalakoakin, pixua egin deion.

Baiña ori ez zan gurea; ori, aurreragotik etorren oitura bat zan.”

Ondoren, ulertzen ez genituan itzak argituko ote zizkigun eskatu genion Enbeita'ri.

Bigarren bertsoan: “dua beresira” esaten da, eta bederatzigarrenean “atzeko dindirrie zepan katiatu”. Oiek onela argitu zizkigun:

“Ori lenago, antziña, gaztaiñari ebagi eta itxi egiten zan. Ta eperdian urtetan eben paluak, eta ak izaten ziran zestuak egitekô. Toki oiek ziran beresiak: goiko beresia, beko beresia, errekaldeko beresia... Besteak txara esaten dabe.

Ta zepia da zesto-paluak sortzen dirana: beresiko zepak. Ta ori dan egurrean, zepan, atzeko dindirrie katiatu txakur orri.

Mintegia, barriz, landarak sortzeko da. Andik atara eta basoetan sartu. Aretxa, gaztaiña eta urkia izaten ziran orduan; orain eztago baiña.

Nik dana gaztaiña ta aretxa jarriko neuke, ta piñuak baiño amar bider aberastasun geiago. Basoak gaur sasiz eta otakaz jantziak dagoz, eta orduan egongo litzakez ardiak mendietan, eta lenago bezela ganadua, eta orreek mendiak garbi, eta gaztaiñak bere alimentu andia, eta ezkurak bere bai txerrientzako.

Piñua gaur ez da errenta. Piñua gaur jarri nai dabenak, gaur piñua jarri, basoak garbitu, jornalak ordaindu, gero urte bi edo iruan

zaindu ori landara ori... Amargarren urtean entresakea; entresakea egin da emon, eta jornalak ez dozuz pagetan. Itxaron gero ogeta-ka urtetan piñuari. Lenago sartu ebanak eta gaur bota, dirua dauko; baiña ez berak orain ipiñi bear balitu. Bi milla ta bosteun pezeta kobretan dabe emen eguna basoan, apiatan eta motosierran dabizenak. Ta au dala ta seguruak eta bestek dirala, beintzat eurak bi milla ta bosteun.”

Amabigarren eta amairugarren bertsoetan kontatzen danaren antzekoa gertatu omen zan Usparitxa'n Balendiñen denboran, berak esan zigunez:

“Gure auzoan, Usparitxa'n, txakurra lotuta eta mutil koskor bi, gure auzokoak; aita eta ama Gernika'ra joan da akordau jakie buztana luzea eukela ta ebagi egin bear deusela. Azkoriagaz *zas!* ebagi ta:

— Oraindik luzea dauko.

Barriz oratuta, beste zati bat. Bota dabe andik bueltan eta odola dariola txakurra. Iges egin eutsen, baiña gerotxago, atzera etorri zanean:

— Ori oindiño onek luzea ez dauko?

Ta orduan eperdiaren ondo-ondotikan. Pedro Ondabarrena eta Juan Ondabarrena ziran, il ziran biak baiña.”

Amalugarren bertsoan, *malletua* itza irakurtzen da. *Mallatua*, noski gipuzkoeraz. Orri buruz, onela esan zigun Enbeita'k:

“Lepoan bat jotzen badabe, baltzunak urte-ten dabe; bigun-uneak atara, malletuak. Ain-

beste malletu, ainbeste mortifikaziño txakurra-ri emon ezkeru, auzora lo egiten joan bear.”

Urrengo gure galdera, bertso auek nork jarriak ote ziran. Onela erantzun zigun:

“Usparitxa'n len bere baziran bertsolariak. Bazan an bertsolari bat, gure aiten-da gazte-denboran: Jose Zerrari. Baiña kiputza zan.

Jose Zerrari emen mendietan ibilli zan zerraketan basoan, tabloiak eta orreek egiten, tren-bideetarako trabiesak-eta ebaten. Eta Usparitxa'n egoan ostatua Pelipene baserrian, eta ori an izaten zan.

A bere bertsolaria zan. Zelebreal Nik, txiki-txikia nintzala ezagutu neban; justu-justuan daukat memorian baiña.

Eta gero beste bat: *Pota* esaten eutsen gatz-izenez. Joakin zan, baiña *Pota*. A bere erdi bertsolaria zan.

Eta orreetatik urtengo eban nire aititak bertsolari, eta ortik urten eben bearbada, Usparitxa'ko izateko, oneek bertso oneek.

Emen aititaren bertso batzuk badaukadaz nik. Zuk bere bearbada izango dozuz. Baiña onen antzik ez dabe.

Bearbada, Jose Zerrari'renak izango dira. Kiputxa zan, baiña urte askoan emen ibili ta emeko berbeta egiten eban.

Nire aita bertsolari atara ebenak bere, Oñati' koak ziran; Oñati'ko bertsolari gazte bi. Nire aitak amabost-amasei urte bezela, ta oneek bere basoetan ibilliak ziran, ta Zugaztieta'ra joaten zan gure aita, eta orreek bi anai ziran, biak

bertsolariak, eta gure aitak esaten eban onak, eta areekin asi zan gure aita.

Lelenguan, ba, areek geiago egiten ebela; baiña azkenerako-azkenerako, ba bardindu bezela, emetik joan ziraneko.

Baiña bertso oneek, neure ustez, oso zarrak izango dira, Usparitxa'tik urteteko. Ze, joan daneko eun urtez onantza andik urten eben bertsoak, gitxi gora-bera badakidaz."

Oneraiño Enbeita'ren argibideak, an magnetofonoz jaso eta etxean papereratuak. Ez genduan, beraz, arako joan-etorria alperrik egin. Eskerrak ematearren, *postal* bat idatzi eta bialdu genion. Berak onako eskutitz onekin erantzun zigun:

"Muxika, 1978'gko. Epailak 7.

Aita Zabala'ri:

Adiskide maite: gaur eskuratu dot zure tarjetatxoa. Lengoan etorri ziñan Uspitxa bertso oien egillea nor zan jakin guran. Begira: egille ori, emen bertso orren jokera ikusi ondoren, nik eta nere lagunak auxe atara dogu eta zigur gagoz: Pedro Ormaetxe zala txakurrari jarritako bertso oien egille. Pedro Ormaetxe onek katuari jarritakuak ere baditu nunbait. Pedro Ormaetxe au Ariatza'koa zan, eta Ariatza Usparitxa'ko barriorearen auzone bat dogu; orregaitik baliteke Uspitxa jartia.

Biotzez:

Enbeita'tar Balendin.

Geigarri: Pedro Ormaetxe 1858 inguruan jaioa dogu. Bertso jartzaille ugaria zala esaten

euskuen aurreko zarrak, baña tamalez ez daukagu bere bertsorik. Eskerrak zuri zerbait jaso dituzulako.”

Guri ez; Don Manuel Lekuona apaiz jaunari bai ordea, bertso auek berak jasoak baitira.

Enbeita'k aitatzen dituan beste oiek, berriz, katuarenak alegia, etzaizkigu orain arte beintzat iñondik azaldu.

Ona, beraz, txakurrarenak:

1/Bertso berri batzuek
biar ditut jarri,
gazte jentiarentzat
entretenigarri,
txakur baten kontuak
esatera garbi,
aditzen emateko
mundu guztiari,
iñor albertentzian
al baledi jarri.

2/Bere kontuak nua
klaru esatera,
nola dan etorria
gure auzotira;
juaten zalia da
olloen tokira,
lotsa emon ezker
dua beresira,
modu onetan gure
txakur au bizi da.

3/Lenengo sartu zanian
gure etartian,
buztena sarturikan
bere ankartian,
bautismua ipini
nion istantian;
gure ama subertez
zeguan atian,
ez eguan bakera
biraldu artian.

4/Ez eban jua gura
neronen alboti,
Jodetres bautismua
ipini bertati;
gero ekarri nion
artua barruti,
libra biko zatia
zan gutxieneti,
puskarik utzi kabe
jan zuan gogoti.

5/Gaba pasatu eta
urrengo egunian,
saludatu nenduan
kariño onian;
jaten eman neutsan lez
bezpera gabian,
inbusteria franku
miña agirian,
ala nai izan zuan
bieramonian.

6/Au zan domeka goiza,
gero arratsaldian
komediak ziraden
Uspitxe aldian:
iru tenga lotuta
bere buztenian,
dandarrez zituala
jarri neutsanian,
proban bezela jun zan
arin indarrian.

7/Ez eutsan eman gure
iñok arturikan,
eta zan akoruneti (*sic*)
biraltziatikan;
baña alegin danak
ziran alperrikan,
bira monan pasau zan
gure etxetikan,
dandarrez zituala
tengak atzetikan.

8/Txakurak jan zituan
janari karuak,
etorri zan jatera
soloko karduak;
tripia larri eta
albora buruak,
tira eraiten eutsan
atzeko karruak:
iru tenga dandarrez
beterik barruak.

9/Ori eta geiägo
zaion subertatu:
atzeko dindirrie
zegan katiatu;
tiratzen zionari
buztena urratu,
gosiak eraiñ biar
eutsan amurratu,
gero persona batek
ein zuan libratu.

10/Libratu zutenian
presiliotikan,
salto egiten zuan
oso gogotikan,
odola dariola
buzten ondotikan;
tripan berriz etzuan
gose faltarikan,
billatu zuan asko
tardau bagerikan.

11/Baldin euki bazuan
gosiaz tripia,
esango det nola zan
bere subertia:
etxe baten gaztiak
nai ekandutia,
zarrak nai esuento (*sic*)
egin zan bakia,
biraltziati kendu
buztenen puntia.

12/Osatu zaionian
buztenen puntia,
akordau zaien gero
dana ebatia;
iru mutiko gaztek
ein zuen juntia:
“Mutil, ik ekarrik’ok
etxeti sokia”,
azkoriaren billa
juan zan bestia.

13/Batak azkoria ta
sokia bestiak,
ofeziale onak
bai mutil gaztiak;
barre eragiñ eustan
eurak ikustiak:
tira aurreti batak
eta jo bestiak,
orrentzat izan dira
tormentu guztiak.

14/Lenengo kortadia
kuratutakuan,
malletue faltarik
etzuan lepuan;
alan da guzti bere
eztau gure juan,
egunez ibilten da
al daben lekuan,
gabaz erretirua
dauka auzokuan.

15/Etzan leku txarrian
Jodetres aurkitu,
bere enfermedadia
eitteko kuratu;
buztena ebai eutsenak
ziran bi mediku,
irugarrenak berriz
ondo begiratu,
ez ebeñ txakur ori
txarto gobernatu.

16/Amasei bertsoarekin
orra despedira,
geiago esan gabe
oiek asko dira;
barriak egiteko
ipiñiak dira
Jodetres'en kontuak
akabatu dira,
nai ditunak ikasi
gezurrak eztira.

Bertso-paperak inprenta-utsegite batzuk ditu an da emen. Zuzendu egin ditugu, baiñan Balendin Enbeita'ren laguntzari ezker zuzenketa oiek ere. Ara nola zion bertso-paperak; 6/5: yruten galotura; 6/9: proban beselagunsan; 7/5: baña alegusar danas; 7/10: tengac eche-tican; 8/10: beteric barrua; 9/5: tiratzen sio nai; 9/9: guero perso batec; 13/3: ofesiale onac bai; 13/4: mutil gastiac.

(1926)

BERTSO BERRIAK
GAZTE BATEK JARRIAK

Amasei bertso auk napar bertsolariren batek jarriak dira. Bertsolari gaztea gaiñera, izenburuak dionez; baiñan izenik ez da ageri; Gregorio Mujika zanaren bilduman arkitu ditugu. Bertso-paper bat da; moldiztegi-izena onela du: *Bengaray Impresor - Pamplona*. Basurede bat eta "eizilari batentzuk nola ibilli diran" kontatzen digu.

1/Milla bederatzi egun da
ogei ta seyian,
kantik jartzera nua
Arraiz'ko partian,
grazia eskatuz
Jaunaren aurrian,
eizilari batentzuk
nola ibilli dian.

2/Almandoz'tik etorri
Ulzama partera,
Kazteluzar deitzen dan
baserri batera;
basurdia sartzen dela
alortxo batera,
berek uste guzien
ura arrapatzera.

3/Ez dira etorriak
txarraren ustian,
propio sartu eta
automobillian;
eizilarik obenak
batzuen ustian,
baña erori dira
deskuido batian.

4/Etorri ta lenbizik
ein dute afaria,
dudarik gabe etzan
bat ere gabia;
gero dijiritzeko
artuta kafia,
purua artu ta
azkar zan jendia.

5/Denbora ederra zagon,
gora ellergia,
deskansura etorri da
orko basurdia;
batek leio batetik
ein du beiraldia,
guartu ziran bezala
an zan komedia.

6/Eizilarik obena
joan da lenbizi,
bañan basurdia ezta
bate juañ igasi;
ez dirade ok bromak,
lan ortara asi,
dudik gabe bazuten
munizio aski.

7/Bi tiro'man dazkio
lemizko asiera,
zazpi posta sartuta
basurdia aurrera;
tiro oien otsa
aditute etxera,
beste lagun bat dator
orren laguntzera.

8/Basurdia suger zagon
erio moduan,
beste bi tiro orrek
kusi dun orduan;
amerikano bat zan
guztiko apuruan,
ori're or juañ da
galtzak ya galduan.

9/Amerikanuakin
txakurra jurio (*sic*),
orri're beratako
propina'man dio;
gau illunian asko
ez laiteke fio,
basurdia delakuan
tiratu omen dio.

10/Suertia egin zutela
alkarren ertian,
denak juntatu eta
konsueloz betian;
denak reuniturik
alkarren ertian,
etxetik linterna bat
ekarri artian.

11/Etzan txorakeria
oiek zuten poza:
basurdi ori janez
biar zutela goza;
baño oker atera da
egin degun gauza:
basurdia delakuan
txerri puzten motza.

12/Ikusi dutenian
etxeko txerria,
denak esaten zuten:
“Lastimagarria!”
obia da segidan
egin sangeria,
bota baño askoz obe
aprobetxatzia.

13/Etxera eman eta
segido apaindu,
gibela prestatuta
berriz ere afaldu;
ezta gose-denbora
oientzat azaldu,
bañan guziengatik
nai zuten itzaldu.

14/Ongi pensatu zuten
nola manejatu,
jendeak etzezala
asko murmuratu;
esaten dute —baño
nola siñestatu?—
etxeko beiek diola
adarron bat sartu.

15/Eizilari oriek
amekak aldian
abiatu dirade
Baztan'a bidian;
oien guziengatik
umore ederrian
sartu izan biaute
beuren errian.

16/Orra amasei bertso
oraingo berriak
zer pago eraman dute
txakur ta txerriak;
noiznai komeni dira
olako eztariak,
bestaldian obeki
ernatu begiak.

Oker zeudelakoan, bertso-paperetik onera aldatzera-koan zuzendutakoak: 1/2: ogei ta seian; 1/3: kantak jar-tzera nika; 7/6: arditute etxera; 8/3: beste bi tiro orren; 9/3: orire beratako; 15/7: sarti azambiaute.

Iruñe'ko *Príncipe de Viana* aldizkariak ere argitaratu zituan bertso auk, 1968 urteko Azaro-Abenduko zenba-kian. Aurretik onela zion:

“Ultzamako ballean dagon Auza erriko erretorea dan Emilio Goldarazena yaunak igorri dizkigu bertsu hauk

Príncipe de Viana'n argitaratzeko. Gogo onez ekartzen ditugu orri hauetara. Goldarazena apez jaunak "Eltzaburuko bertsolariaren agotik" artu ditu, berak digunez, eta uste dugu bertsolari hau Joshe Mari Mutuberria izanen dela. Biei gure eskerrak, eta jaun hauk egiña bestek egin dezatela eskatzen dugu emendik."

Ta ondoren bertsoak, baiñan aitatzerik merezi duan aldaketarik gabe.

PUSKALLAK

Emendik aurrera ez dago liburu onetan bertso-sail osorik; puskak baizik. Puskallak, Oiartzun aldean esaten danez. Guk ez genduan itz ori ezagutzen. Ikasi berria degu.

ARKAKUSOA

Iru bertso auek eta beren doñua, Oiartzun'go Juan Mari Lekuona adiškideak emanak ditugu. Aurretik oar jakingarri au egin zigun:

“Berinberri'ko Juan Mari Berasategi'k kantatzen zituen; eta iru belaunaldi geroago familia ontakoak beren etxeko festetan kantatzen dituzte. Gure birraitonak ez omen zuen bertso-sail osorik ematen, puskallak baizik.”



Arkakusuak dira
ganadu ariñak,
gure persegidore
mundura egiñak.
Lengoan jan nituen
baten giltzurdiñak,
libra bana baziran
aren letagiñak.

Arkakusuk aurrian,
tximitxak atzian,
ixil etortzen dira
oiera sartzian.

.....
.....
ai zer lagungarriyak
dauzkagun etxian!

Andriak esaten dit:
“Piztazu argiya,
zimiko bat egin dit
txit izugarriya.”
Sorgiñak diralako
beldurrak jarriya,
orla pasatzen degu
gabaren erdiya.

★ ★ ★

GABIROYAK ETA AZERI BASAKATUAK

Bi bertso auek, Juan Mari Lekuona'k emanak ditugu. “Ez dizut bada irikiko gau illunean aterik” bertsoen doñuaz kantatu zizkigun, aurretik oar au egiñik:

Oiartzun'go Aldura difuntuak kantatzen omen zituen. Gure osaba Marik ari ikasi zizkion; eta guk osabari. Oiek bakarrak dira gaur dakizkigunak.”

Airian dabillen egazti bati
begira egon naiz egun;
ondo erreparatzen nion baiña
ezer ez zuen ezagun.
Gabiroyiak oillarrak jan da
auzoak paga dezagun.

Gabiroi antzekuak dira
azeri basakatuak,
lengoan ikusi nitun
elkarrena juntatuak;
kukurrukurik ez zuen jotzen
oillar madarikatuak.



ELDUAIN'GO ASTOA

Bi bertso auek —geiago ere izango ziran noski— Etxalar'ko Fermin Danboriena zanari jaso nizkion. Onela esan zigan:

“Elduain'go errian, Kontzejuko etxea, Aiuntamentuko etxea, zagon maixterrikan gabe, eta, nunbait besta eginta, gogoa arin zuten batzuek astoa jarri zuten balkoian; eta urrengo egunean, argitu zuen denborean, jendeak ikusi zuen ba nola zagon astoa balkoian, eta bertsoak paratu zituzten:

Elduain'go errian
ixtilluak daude,
zer ikusi bear degun
arriturik gaude;
Kontzejua zeguan
maixterrarik gabe,
astua egin zaigu
etxiaren jabe.

Balkoyian jarrita
astuaren gala!
Paseatzen zebillen
konde bat bezala.
Jendiak omen zion
kaletikan ala:
errejidorien bat
izan bear dala.

Kantatu, Bilintxen *Triste bizi naiz eta* asten
diran bertsoen doñuarekin egin zituan.

★ ★ ★

KUKUSOA

Bertso aukeratuak Oiartzun'go Ergoin'en jaso
genituan, Portuburu baserriko Inazio Irazu'
ren aotik:

“Bertso oik, or, Lesaka'n, bazen gizon bat,
Txaldarme deitzen zioten. Frantzia'n jendar-
miak dira noski, emen guardia zibilak bezela;
baño guk eta Lesaka'ko jendiak-eta, airi
txaldarmak esaten diegu, errexago dalako edo
frantzes euskaldunak ola deitzen dietelako edo
ez dakit zergatik. Ta orreri ere Txaldarme
deitzen zioten. Txaldarme, bai. Ta orrek
jarritako bertsuak. Izango dira geiago, baño
nik iru uste dut akordatzen naizela. Ola dira:

Animali bat bada munduan,
kukusua du izena,
uda-partian ernegazio
txar pranko ematen duena;

isatsik ez du, mutur luzia,
ijara pranko gizona,
bazarretikan begiratuta
iduri baitu zezena,
iñoiz saltoka asten danian
ezta sujeto zuzena.

Ganadu orrek jaio orduko
badauka ofiziyua,
ortzikan ez du ageri bañan
kozkaka afiziyua;
berak nai duen leku danetik
egiten du aziyua,
bulla aundirik atera gabe
ark bere negoziyua,
eta pakian dagoanari
emanaz okasiyua.

Orain azkenekua, tartian izango dira geiago
baño:

Bertsu ok ditu jarri Txaldarmek
astelen-arrats batian,
ganadu oiek etziratzen da
iñun utzitzen pakian;
borroka fuerte aritua naiz
egundoko atakian,
egin nituen indar guziak
nere buruan kaltian,
oiek ez dira deskantsatutzen
odolez ase artian.

Badu orrek beste berttua; puntu bat badakit,
edo bi:

Berak nai duen toki danetan
egingo dio bixita,
bestela euki biarko ditu
atiak ongi itxita.”



Lesaka'ko Pepito Yanzi'k ere bazuan bertso auen aditzea: jartzallea Txandarme esaten zioten bat zala eta bi bertso buruz zekizkiala. Bertso oiek lendabizikoa eta laugarrena ziran. Lendabizikoa, aldaketa askorekin; eta laugarrena, osorik:

Munduan bada animale bat,
kukusua du izena,
uda-partian ernegazio
txar asko jartzen duena;
buztanik ez du, mutur luzia,
gorputza franko gizona,
apartetikan begiratuta
iduri baitu zezena,
iñoiz saltoka asitzen bada
ezta sujeto zuzena.

Toriatzen du kaballerua,
señora ta señorita,
emakumia naiago igualin
gizasemia utzita;
lodi samarra partikularki
naiz ez izanik polita,
toki sekretu oitara igual
egingo dio bisita,
bestela ondo iduki biar ttu
atiak ondo itxita.



“POZIKAN BIZI BAGIÑAN ERE...”

Aia'ko Urdaneta ballaran jaio eta Lasarte'n bizi dan Pedro Artetxe adiskideari jasoak ditugu doñu ta bertso auek.

Aurretik onela esan zigun: Nere aurtzaroan
Urdaneta'n ikasitako kantutxo batzuek. Aurrai
eta ola kantatzen zitzaizen:



Pozikan bizi bagiñan ere
tristura ederrak jo gaitu:
zazpi librako ollar txuriya
bart axariyak jan digu,
urra labirun labirun leira
bart axariyak jan digu.

Gure ollarrak mokua luxe,
atzapartxua lijero,
etxeko ollo txuriya baño
kanpoko beltza naiago,
urra labirun labirun leira
kanpoko beltza naiago.

Buru beltzaren etxian
eztaiak ziran astian,
auzuetako egazti asko
zeuden tupiya beltzian,
urra labirun labirun leira
zeuden tupiya beltzian.

Ango sala ta ganbara
urdandegi bat bezela,
ontziyak ere zizallupian
Potxolok garbi zitzala,
urra labirun labirun leira
Potxolok garbi zitzala.

★ ★ ★

Azkue'k, bere *Cancionero Vasco* kanta-bilduman, 427 zenbakian, aurreneko bertsoa dakar; bai beste zenbait bertso ere, baiñan auek ez dute zer ikusirik or goien ipiñi ditugun oiekin. Segura'n, Gabika'n eta Bakaikoa'n jasoak ditu, eta erri oietako bakoitzean kantatu zioten doñua ere azaltzen du.

★ ★ ★

KATUARENAK

Iru bertso auek Alza'ko Gazteluene'n jaso genituan, Txirritaren illoba, Jose Ramon Erauskin Lujanbio'k emanda. Osabari adituta ikasi omen zituan berak; baiñan ez omen dira arenak, beste batenak baizik. Izenik ez jakin, ordea. Seguru aski, bertso geiago ere izango zan.

Gordeleku txiki bat
beretzat arturik,
arratoiak etzuten
arekiñ traturik;
nere amigo batek
joka akabatu dit,
geiago ez det izango
alako katurik.

Kolpe izugarri bat
artu du burutik,
arekiñ akabatu ta
juana da mundutik;
ez nuela emango
bost durongatik,
merkiago aldegin dit
nere ingurutik.

Botillakin buruan
jo ta akabatu,
kulpa gabe etzuen
susto txarra artu;
eta gero maleziz
arripian sartu;
badaki zeñena dan
nai badu pagatu.

★ ★ ★

ASTOARENAK

Bost bertso auek ere, Gernika'ko Julio Bareño zanak bialduak ditugu. Amoroto'ko Alejandra Zubizarreta amonari jasoak dira.

Izenburuaren azpian oar au egiten du Bareño jaunak:

“Amoroto'tik Donostia'rako bidien, arrautza saltzen joaten ziranekoan. Egunoro oñez”.

Oñez eta egunero egiteko, luzetxoa da noski bide ori. Bearbada, lenengo bertsoan kargatu an egiten zutela esaten baita, Zubieta'tik Donostia'rakoa izango zan. Ola bai; ola “bide polita dago” esan diteke. Erri baten izena idatzi bearrean, oartu gabe bestearena idatziko zuan bearbada Bareño jaunak.

Zubieta'n kargatu
Donostia'rako,
bide polita dago
egun baterako.

Asto orrek kargak
aurregi daduzka,
ujala bi legua t'erdi
aurrera baleuzka.

Basatzan sartu eta
ezta iñon agiri,
arrautza traturako
ona dago ori.

Asto oni emoiozu jaten,
eztago egarriyak,
gosiak sartu bearrik
daukaz begi biyak.

Gañera kargatu ta
asto zarra flako,
orduan bi legua
ez ditu pasauko.

★ ★ ★

ABEK IXTILLUAK

Bertso bakar au, izenburu orrekin berarekin,
Tolosa'ko Estanislao Urruzola'ren kuaderno
batetik degu:

Nere etxian beia susa da,
txerria berriz irausi;
astua ere arrantzaz dago,
igeltzen ote dan asi.
Zakurra ere alta zegon da
joana degu igesi.
Bada-ezpada bide auetan
ez al dezute ikusi?

ORAINDAÑOKO LIBURUAK


1. *R. Artola*: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: Gabon, Au ostatubal, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi*: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. *Pepe Artola*: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. *P. M. Urruzuno*: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. *T. Alzaga*: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. *A. Apaolaza*: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. *B. Iraola*: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. *Bilintx*: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. *M. Izeta*: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. *P. Larzabal*: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. *A. M.^a Zabala*: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. *A. M.^a Labayen*: Malentxo alargun! (*Aitua*).
- 18-19. *A. Zavala*: Txirrita. (*Aitua*).
20. *F. Goñi*: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. *P. Larzabal*: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*).
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. *F. Imaz*: Bertso guziak. (*Aitua*).
25. *A. P. Iturriaga*: Jolasak. (*Aitua*).
26. *A. M.^a Zabala*, *A. Larraitz*, *Mir*: Periyaren zala-partak.
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. *B. A. Mogel*: Ipui onak. (*Aitua*).
29. *T. Alzaga*: Burruntziya. (*Aitua*).
30. *G. Anduaga*: Egunsentiko txoria. (*Aitua*).
31. *M. Soroa*: Baratzen. (*Aitua*).
32. *M. Elicegui*, *A. Zavala*: Pello Errotaren bizitza. (*Aitua*).

33. *M. Elicegui, A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak.
34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua. (*Aitua*).
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: Festara.
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. *S. Salaverria*: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa. (*Aitua*).
42. *Uztapide*: Noizbait. (*Aitua*).
43. *Bertsolari-txapelketa*. (1-I-1965). (*Aitua*).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. *P. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra. (*Aitua*).
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua*).
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma.
54. *A. Zavala*: Fernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. *Basarri*: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsolaria. (*Aitua*).
- 57-58. *C. Beobide*: Asis'ko Lorea. (*Aitua*).
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsolaria.
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsolaria.
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria.
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. *J. M. Satrustegui*: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. *Bertsolari-txapelketa* (11-VI-1967). (*Aitua*).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak.
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).
- 74-75. *A. Zavala*: Erreterria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak. (*Aitua*).
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan María Zubizarreta bertsolaria (*Aitua*).
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak. (*Aitua*).
84. *M. Matxain*: Uste gabeen.
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*).
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90. *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria. (*Aitua*).

91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*).
92. *I. Alkain, A. Zavala*: Alkain aita-semeak.
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak.
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*).
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari.
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*).
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi-gañetik.
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela. - Ezkioko ta Segurako itxuak.
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsularia.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-saria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak.
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria.
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak.
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari.
- 117-118. *Balentin Enbeitia*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari.
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zapi-rain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J. M. Arrizabalo, A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaiok bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.



1051007
G-128/20



AUSPOA
LIBURUTEGIA

